








Albiste testu bikainak

Irrati eta telebistarako eskuliburua

Asier Larrinaga Larrazabal



Larrinaga Larrazabal, Asier

Albiste testu bikainak : Irrati eta telebistarako eskuliburua / Asier Larrinaga Larrazabal.-- Bilbo :

Euskal Irrati Telebista, 2012

94 or.-- 28 cm

Aurkibideak.

ISBN 978-84-940427-5-1

1. Euskara-Estilo eskuliburuak 2. Ikus-entzunezko kazetaritza I. Euskal Irrati Telebista

070.4 : 654.19

811.361'38

ALBISTE TESTU BIKAINAK Irrati eta telebistarako eskuliburua

Egilea: Asier Larrinaga Larrazabal

Laguntzaileak: EiTbko Euskara Zerbitzua
ETBko erredakzio-taldea
Euskadi Irratiko erredakzio-taldea

Diseinua eta maketazioa: Mediaprint (Cristina Cendoya)

ISBN: 978-84-940427-5-1

Lege-gordailua: SS-19-2013

© EiTb, 2012

Helbidea: EiTb –Basurtuko Kaputxinoak, 2 – 48013 Bilbo (Bizkaia)

Kontaktua: 00-34-946563126 eitb@eitb.com

Aurkibidea

Hitzaurrea	04
Erabiltzailearen gida	05
1. Albiste-testu bikainek albistegietarako berariazko ezaugarriak dituzte	06
1.1. Komunikatzen dutena bat dator kazetariak aditzera eman nahi duenarekin.....	07
1.2. Hizketa naturalaren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituzte.....	09
1.3. Irudien eta audioen osagarri dira.....	13
2. Albiste-testu bikainak arretaz taxututa daude.....	14
2.1. Programa baten parte dira.....	15
2.2. Informazioa egokiro antolatuta daukate.....	20
2.3. Perpauak ondo osatuta daukate.....	28
3. Albiste-testu bikainetan arretaguneak bost dira.....	35
3.1. Protagonistak (NOR).....	36
3.2. Gertaera (ZER).....	40
3.3. Denbora (NOIZ).....	43
3.4. Lekua (NON).....	48
3.5. Kausak eta arrazoiak (ZERGATIK).....	51
4. Albiste-testu bikainetan zehaztatzeko datuak ematen dira.....	54
4.1. Zenbakiak	55
4.2. Informazio-iturriak	62
4.3. Gerta daitekeena	66
4.4. Inguruabarrak	70
5. Albiste-testu bikainak eragozpenik gabe gauzatzen dira ahoz	73
5.1. Fonemak arauzko eran ahoskatzen dira.....	74
5.2. Hots-bilkurak hizketa naturalean bezala ebazten dira.....	77
5.3. Doinuera mezuaren euskarri da.....	80
Aurkibide gramatikala	85
Gaikako aurkibidea	88

Euskal Irrati Telebista sortu zenetik hona igaro diren hogeita hamar urteetan, gertakizun larriak eta gertakizun xumeak izan dira euskal gizartean; aldaketa soziopolitiko handiak eta tradizio zahar berriztuak; jauzi teknologikoak eta kultur pizkundea. EITBk denen berri eman du, baina ez lekuko modura bakarrik. EITB funtsezko bitartekoa izan da euskal gizarteak informazioaren aroarekin bat egin zezan. Lehenengotan, Euskadi Irratiaren eta Euskal Telebistaren bidez; geroago, Interneteko eta sateliteko leihoen bidez ere bai.

Informazioaren aroarekin bat egiteko helburuak era askotako erronkak ekarri zituen: ekonomikoak, teknologikoak, bai eta linguistikoak ere. Denak ziren erronka irekiak, etengabeko ardura eta ekina beharko zutenak, elkarlana eta baliabideen kudeaketa egokia eskatuko zutenak. Hain zuzen, ardura, ekina, elkarlana eta kudeaketa egokia izan dira EITBren jardunbidearen gakoak, 1980ko hamarkadan estandarizatzen eta normalizatzen hasi berria zen euskarari ikus-entzunezko hizkuntza bihurtzeko bidean laguntzeko.

Bide oparoa izan da, emaitza ugarikoa. EITBko euskara-arduradunen eskariz, 1989ko apirilean, *Euskara (erabileraz) 1* liburuxka prestatu zuen Euskaltzaindiak, Jean Haritschelhar, Patxi Altuna, Joan Mari Lekuona eta Miren Azkarate euskaltzain eta hizkuntzalarien aholku eta begirapean. 1989ko uztailan, bigarren liburuxka: *Euskara (erabileraz) 2*.

Liburuxka bion eta eguneroko jardueraren esperientzia, *Euskarazko albistegietarako esku-liburua*-n batu zuen Manu Arrasatek 1992an, EITBren hamargarren urteurrenean. Ondorengo urteetan, ia astez aste, EITBko Euskara Zerbitzuak ekarpen berriak egin zituzten euskarazko informazio-hizkeraren gaineko ezagutzari, eta EITB osoan zabaldu esku-orri gisa.

Euskal Irrati Telebistaren egoitza nagusia Bilbora aldatu zen urtean, 2007an, Asier Larrinagak *Euskarazko albistegietarako esku-liburua II* titulupean jaso zituen lehen eskuliburuaren emaria eta ostean landutako ezaguera. Bigarren eskuliburu horretan, berme akademikoa bildu nahian, Juan Garzia (Euskal Herriko Unibertsitatea), Beñat Oyharçabal (Paueko Unibertsitatea), Rosa Miren Pagola (Deustuko Unibertsitatea) eta Beatriz Zabalondo (Mondragon Unibertsitatea) adituen lankidetzan izan zen testuaren berrikuspenean eta orrazketan.

Esku artean duzun eskuliburu hau, *Albiste testu bikainak*, 2007koaren edizio hobetu eta emendatutzat jo daiteke. Hori baino gehiago ere bada; lehenik, diseinu aldetik. Testuari dagokionez, aintzat hartu du EITBko Euskara Zerbitzuaren azken bost urteetako lana, eta Jexux Artetxe, Edurne Atxotegi, Itziar Bilbao, Joseba Etxebarria, Iratxe Goikoetxea, Estitxu Irisarri, Asier Larrinaga, Igone Menika, Natxo Velez eta Ana Zulueta Euskara Zerbitzuko lankideei zor die testuaren berrikusketa, adibideen eguneratzea, eta, jakina, orriz orri jaso den ezagutza guztiaren osaketa.

Eskuliburu hau euskarazko beste eskuliburu batzuen zordun ere bada. Euskara estandar komunikatiboaren garapean ezin ahaztuzkoak dira Egunkariaren *Estilo liburu*a (1992), Esnal eta Zubimendiren *Idazkera-liburu*a (1993), Juan Garziaren *Joskera lantegi* (1997), Alberdi eta Sarasolaren *Euskal estilo libururantz* (2001), EIMA eta Garziaren *Kalko okerrak* (2005), IVAPen *Estilo liburu*a (2005), Berriaren *Estilo liburu*a (2006), eta EIMA eta Petrirenaren *Morfosintaxia* (2011).

Lan hau irratiko eta telebistako komunikatzaileengan pentsatuta prestatu da batik bat, baina baita unibertsitatean komunikazio-ikasketak egiten ari direnengan pentsatuta ere. Egiazko eskuliburu bat izan nahi du batzuentzat eta besteentzat, eta, horregatik, egun profesional batek eskura izateko moduko formatu guztietarako moldatu da: papererako, ordenagailurako (pdf gisa) eta liburu elektronikorako.

Erabiltzailearen gida

Irratian edo telebistan ari den kazetariak komunikatzeko darabilen **estrategia** nagusietako bat **albiste-testu bikainak** prestatzea da. Eskuliburu honek bost kapitulutan erakusten du zelan prestatu irratirako eta telebistarako albiste-testu bikainak.

Lehen kapituluan, albiste-testuen **ezaugarriak** aztertzen dira. Bigarrenean, **egitura eta antolamendua**. Hirugarrenean, albiste-testuetako **bost koordenatuak**. Laugarren kapituluan, **eduki nagusiak**. Bosgarrenean, **ahoskera eta doinuera**.

Kapitulu bakoitzean, hainbat atal egin dira. Atal bakoitzaren hasieran, azalpen labur bat jarri da, **sarrera** gisa. Horren ondoren, **deskribapena** dago, testuan erabiltzen diren terminoak finkatzeko. Atzetik **aholkuak** datoz. EiT布伦 informazio-hizkeraren eredia aholku horietan bildu da.

Argigarri modura, testua **adibide ugariz hornituta** dago. EiT布伦 bikaintasun-ereduarekin bat datozen adibideak **urdinez** markatuta daude, eta bat ez datozenak, **gorriz**. Adibide batzuk eta besteak berariazko ikurren bidez eta berariazko azpimarren bidez ere bereizten dira. Eskuliburu honetan proposatzen den ereduarekin bat ez etortzeak ez du esan nahi **okerra** izatea. Horrenbestez, gorriz ageri diren adibide asko zuzenak dira, baina EiT布伦 albistegietarako urdinez daudenak hobesten dira.

Erabiltzaileari laguntzeko asmoz, lehendabizi, **aurkibidean**, kapitulu eta atal guztien eskema ipini da. Liburuaren amaieran, beste aurkibide bi ipini dira: **gramatikala** —gramatika-liburuetan erabili ohi den antolatze-sistemari jarraitzen diona— eta **gaikakoa** —testuan aipatzen diren hitz eta egitura guztien zerrendarekin—.

Eskuliburu honetan ez da **bibliografiarik** ipini, baina han-hemenka beste liburu batzuetatik jasotako aipuak ageri dira, testuan esaten dena berresteko eta esku artean erabili diren erreferentzien berri emateko.

I. Albiste-testu bikainek

albistegietarako berariazko ezaugarriak dituzte

Albiste-testuek hiru ezaugarritan erakusten dute beren-beregikoak direla albistegietarako. Lehenik, informazioa emateko erabiltzen dira (1.1.). Bigarrenik, ahoz zabaltzen dira (1.2.). Hirugarrenik, soinuekin eta irudiekin batean doaz (1.3.).

I.1. Albiste-testu bikainek


komunikatzen dutena bat dator kazetariak aditzera eman nahi duenarekin

Gauza bat da kazetariak buruan dauzkan informazio eta datu guztiak, eta beste gauza bat da zelan ematen dien horien berri ikus-entzuleei albiste-testuaren bidez. Burutik testura, kazetariak jakinean aukeratu behar du zer datu jaso, zelan adierazi datuok, eta zelan egituratu denak kontakizunean.

Aholkuak

- 1.1.1. Datu guztiak ematen bazaizkie, ikus-entzuleek errazago ulertzen dute albistea. Komunikazio-estrategia gisa, kazetariak ez ditu gauzak jakintzat jo behar. Izan ere, berria zenbat eta sakonago ezagutu, orduan eta handiagoa da informazioa kolkoan gordetzeko arriskua.

Azpiko esaldia, adibidez, oso nahastetsua da, ez baita esplizituki azaltzen ikasleak eskola gabe daudela ikasturtea hasi zenetik irakasle faltagatik.



- ✘ Unibertsitateko Gobernu Batzordean **lau plaza berri** onartu ziren Arkitektura Eskolarako, eta orain **prozesu hori** martxan da. Laster **ikasleak** geletan egotea espero dute.
- ✔ Unibertsitateko Gobernu Batzordeak **lau irakasle berri** onartu zituen Arkitektura Eskolarako. **Hautatze prozesua** orain hasi da, eta **irakasle berriak** laster izango dira eskolak ematen.

Teletipotik kazetariaren testura, oharkabean gal daitezke datuak, batik bat itzulpena tarteko bada. Azpiko testuan, esaterako, sexuaren datua jan, eta adinarena birritan eman da.

- ✘ **Hogeita bost urteko gazte bat** hil da Amarako tunelean izandako istripuan.
- ✔ **Hogeita bost urteko gizaseme bat** hil da Amarako tunelean izandako istripuan.

- 1.1.2. Berria prestatzen amaitutakoan, kazetariak berriro irakurtzen du idatzitakoa, eta arretaz egiaztatzen du testuak zer dioen, adierazte-arazoak detektatzeko: ezkutuko esangurak, datu okerrak, informazio-hutsuneak...

- ✘ Akusatu nagusia epaiketara **agertu ez denez**, fiskalak haren adierazpenak derrigorrezkotzat jo ditu, eta epaiketa bertan behera uztea eskatu du.
- ✔ Akusatu nagusia **ez da epaiketara agertu**. Fiskalak funtsezkotzat dauzka haren adierazpenak, eta, beraz, saioa geroratzea eskatu du.

(1) Argota nonahi dago, baina, antzematen badiozu, ikus-entzuleei mesede bat egin diezaiekezu, eta horren ordez hizkuntza erreala, ulerterraza erabili.

- ✘ Unibertsitatean **emaztea** ezagutu, eta Euskal Herrian geratzea erabaki zuen.
- ✔ Unibertsitatean **emazte izango zuena** ezagutu, eta Euskal Herrian geratzea erabaki zuen.

- ✘ 2001eko irailaren 11ko **atentatuari esker**, mundu osoan egin da ezagun Bin Laden.
- ✔ 2001eko irailaren 11ko **atentatua dela medio**, mundu osoan egin da ezagun Bin Laden.

- ✘ Jaian, idazle eta musikarien **artean** jende ezaguna izan zen.
- ✔ Jaian, idazle eta musikari ezagunak izan ziren.

- ✘ Hauteskundeetan izateko eskubide osoa duela aldarrikatu du ANVk prentsaurrekoan, eta **esan omen diren gezurrak** ukatu ditu.
- ✔ Hauteskundeetan izateko eskubide osoa duela aldarrikatu du ANVk prentsaurrekoan, eta **gezurtzat jo ditu** esan diren gauzak.

“Keep sentence
 structure simple –basically
 one idea to one sentence. (2)”
 DIS Broadcast Writing
 Style Guide

(2) Esaldiaren egitura mantentzeko ezazu sinple; funtsean, ideia bat esaldi bakoitzean.

I.2. Albiste-testu bikainek

hizketa naturalaren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituzte

Albiste-testuak idatziz prestatzen dira, edo, gutxienez ere, aldez aurretik pentsatzen dira, eta hori igarri egiten da, batez ere ezaugarri bigatik: informazioa ondo atonduta egoteagatik, eta hizkuntza zuzen erabiltzeagatik.

Gainerakoan, albiste-testuek ahozko testuen ezaugarriak dituzte. Izan ere, ahoz zabaltzeak zeharo baldintzatzen du testugintza. Ikus-entzuleei ulertzen lagundu behar zaie, ez baitute modurik ez testua birritan aztertzeko, ez pasarte ilunak mamurtzeko, ez hiztegiira jotzeko.

Deskribapena

I.2.a. Hizkuntza hainbat era ezberdinetan erabiltzen da, komunikazio-egoerak ere ezberdinak dira eta. Hizkuntzaz baliatzeko era bakoitzari hizkuntza-aldaera edo hizkera deritzo.

Euskaldun guztiei zuzentzeko, euskalkiez haragoko hizkera bat daukagu, euskara batua. Horregatik, Euskal Irrati Telebistan albisteak euskara batuan zabaltzen dira.

Komunikazioa idatziz bideratzen bada, erabiltzen den aldaerari idatzizko erregistroa esaten zaio. Ahoz aritzean, ahozko erregistroa erabiltzen da.

Irratian eta telebistan, ahoz bideratzen da komunikazioa, baina testuak idatziz prestatzen dira aldez aurretik. Horregatik, hizkera berezia da, eta erregistro mistoa deritzo.

I.2.b. Idatzizko erregistroak bezala, erregistro mistoak ezaugarri hauek ditu.

- Pentsatzeko astia dagoenez, testua planifikatu eta informazioa ondo antolatzen da.
- Testua berrikusteko aukera dagoenez, okerrak eta akatsak zuzendu egiten dira.

Ahozko erregistroak bezala, erregistro mistoak ezaugarri hauek ditu.

- Ideia-pilaketa saihesten da, eta oro har perpaus bakoitzean ideia bakarra jartzen da.
- Sintaxi bihurri, hanpatu eta korapilatsua baztertu egiten da.

Aholkuak

I.2.1. Albiste-testuetan ez dira egoki paperean idatzita ikusi ezean nekez ulertzen diren gauzak. Ahoz beste modu batera adierazi beharko dira, ikus-entzuleek ulertzea nahi bada.

Zenbaki zehatzegiak biribildu egiten dira, batik bat biribilduta ere deigarri izaten segituz gero.

- ✘ Bigarren itzulian, Michele Alliot-Marie eskuindarrak **29.409 boto** lortu ditu, seigarren hautes-barrutiko **boto guztien %60,87**.
- ✔ Bigarren itzulian, Michele Alliot-Marie eskuindarrak **29.000 boto** lortu ditu, seigarren hautes-barrutiko **boto guztien bi heren**.

Berrietako protagonisten adierazpenak kontatu egiten dira, ikus-entzuleek ezin baitituzte ikusi kazetariaren papereko aipu-markak.

- ✘ «**Hamazortzi hilabete egon gara**», esan du Trimblek dimisioa azaltzean, «IRA noiz mugituko zain».
- ✔ Dimisioa azaltzean, Trimblek esan du **hamazortzi hilabete egon direla** IRA noiz mugituko zain.

Testua prestatzean, esan nahi dena idatzi behar da, irakurtzeko orduan zalantza egin daiteke eta. «CO» ikusiz gero, zer esan behar du kazetariak?

- ✘ Berokuntza-sistema ez zegoen behar bezala instalatuta, eta etxeko guztiak hil ziren, **CO** arnastuta.
- ✔ Berokuntza-sistema ez zegoen behar bezala instalatuta, eta etxeko guztiak hil ziren, **karbono monoxidoa** arnastuta.
- ✘ **3 x 3 m2-ko** gela batean eduki du itxita gaur arte.
- ✔ **Bederatzi metro karratuko** gela batean eduki du itxita gaur arte.

1.2.2. Hobeto ulertzen dira esaldi osoak, esan beharrekoa ekinaldi bakarrean adierazten dutenak, ideia-jarioa parentesi, azalpen, digresio edo itzulinguruekin eteten ibili gabe.

- ✘ Horrek esan nahi du, **Javier Dean sailburuordeak azaldu digunez**, babes ofizialeko etxeak egingo lirakekeela beste 31 udalerritan.
- ✔ Horrek esan nahi du babes ofizialeko etxeak egingo lirakekeela beste 31 udalerritan, **Javier Dean sailburuordeak azaldu digunez**.
- ✘ Orain atsedena hartuko du indarberritzeko eta beste proiektu batzuk, **Londreseko Europako kopa, esaterako**, aurrera eraman ahal izateko.
- ✔ Orain atsedena hartuko du indarberritzeko eta beste proiektu batzuk aurrera eraman ahal izateko; **Londreseko Europako kopa, esaterako**.

1.2.3. Perpaus-kate erraldoi eta konplexuak ulertzen zailak dira, eta hobe da apurtzea. Horrek ez du esan nahi ideia-jarioa emateko modu bakarra esaldi sinpleak egitea denik.

- ✘ Hogege dira atzo Huelvan izandako autobus istripuan hildako jubilatua, ezbeharra gertatu zen unean bertan hildakoez gain, Sevillako ospitalean zaurituetako bat hil baita, udal kiroldegian beste hemeretzi aldeko hileta elizkizuna hasi baino minutu batzuk lehenago.
- ✔ Hogeigarren heriotza ekarri du atzo Huelvan izandako autobus istripua. Zaurituetako bat gaur goizean hil da Sevillako ospitalean, udal kiroldegian beste hemeretzi aldeko hileta elizkizuna hasi baino minutu batzuk lehenago.

1.2.4. Albiste-testuetan ez dute lekuri literaturako eta goi-mailako kutsua duten egiturek.

- ✘ Argentinako presidentearen dimisioa eragin du krisi ekonomikoak, **zeinaren** ondorioz herritar gehienek urteetako aurrezkiak galdu **baitituzte**.
- ✔ Argentinako presidentearen dimisioa eragin du krisi ekonomikoak. Krisiaren ondorioz herritar gehienek urteetako aurrezkiak galdu dituzte.
- ✘ Europar Batasunean, langabezia **hain** arazo larria da, **nola** immigrazioa.
- ✔ Europar Batasunean, langabeziaren arazoa immigrazioarena **bezain** larria da.

1.2.5. Informazioaren muina perpausaren hasieran ematen bada, komunikazioa errazago bideratzen da. Informazio-kargarik handieneko osagaia aditza izanik, estrategia ona da aditza perpausaren aurrealderantz ekartzea, atzealdean ezkutatu barik.

- ✘ Euskal Herriko Unibertsitateak eta Donostia Kulturak antolatu duten kontzertu-zikloaren egitaraua, maiatza bitartean Antzoki Zaharrean egingo diren lau ekitaldiek, Ibaetako campusean egingo diren musika jaialdiek eta San Bizente elizan izango diren kontzertu klasikoek **osatuko dute**.
- ✔ Euskal Herriko Unibertsitateak eta Donostia Kulturak kontzertu-zikloa **antolatu dute** maiatza bitartean, eskaintza zabaleko egitarauarekin: lau ekitaldi Antzoki Zaharrean, musika jaialdiak Ibaetako campusean, eta kontzertu klasikoak San Bizente elizan.
- ✘ Hegoaldeko emakumeen enpleguak azken 25 urteetan izan dituen aldaketen gaineko ikerlan bat **egin du** LAB sindikatuak.
- ✔ LAB sindikatuak ikerlan bat **egin du** Hegoaldeko emakumeen enpleguak azken 25 urteetan izan dituen aldaketen gainean.

Illo horretatik, bigarren mailako datuak eta informazio osagarriak ez dira esaldiaren buruan jarri behar, jakinarazi nahi dena atzeratu egiten da eta.

- ✘ Saillapeneko azken postuetatik ihes egiteko, Realak datorren igandean Espanyolen aurka jokatuko duen partidari nahitaezkoa du irabaztea.
- ✔ Realak nahitaezkoa du irabaztea datorren igandean Espanyolen aurka jokatuko duen partidari, saillapeneko azken postuetatik ihes egiteko.

1.2.6. Informazioa errazago ulertzen da esaldia modu aktiboan jartzen bada. Euskaraz, egin daitezke esaldi pasiboak, baina ez dira informazioa aditzera emateko modurik egokiena.

- ✘ Lanaren legea aldatzeko proiektua txarto **hartua izan da** Italia osoan, eta grebak erabat geldituta utzi du herrialdea.
- ✔ Lanaren legea aldatzeko proiektua txarto **hartu dute** Italia osoan, eta grebak erabat geldituta utzi du herrialdea.
- ✘ Bangkokeko aireportuan bi durangar **atxilotuak izan dira**, maleta barruan 800 gramo heroina zeramatela.
- ✔ Bangkokeko aireportuan bi durangar **atxilotu dituzte**, maleta barruan 800 gramo heroina zeramatela.

Ekintza nork egin duen isildu nahi bada, edo egilea ezezaguna bada, euskaraz ez dago zertan jo esaldi pasiboetara. Perpaus inbertsonalak egiteko, egitura aktiboak erabil daitezke, subjektu modura *hai*ek ipiniz.

- ✘ Estatu Batuetan banderak masta erdian **ipiniak izan dira** gaur, irailak 11, 2001eko atentatuetakoko biktimen omenez.
- ✔ Estatu Batuetan banderak masta erdian **ipini dituzte** gaur, irailak 11, 2001eko atentatuetakoko biktimen omenez.

“
In broadcasting, the basic sentence structure Subject - Verb - Object works every time. The audience grasps what you are saying straight away. Anything more flamboyant, such as a subordinate clause, is a potential barrier to understanding. (3)”
The BBC news styleguide

(3) Irrati-telebistetan, esaldiaren oinarrizko egiturak (subjektua - aditza - objektua) ondo funtzionatzen du beti. Entzuleek berehala harrapatzen dute zer esaten ari zaren. Egitura bitxiago bat —perpaus menderatu bat, adibidez— ulermenerako oztopo izan daiteke.

I.3. Albiste-testu bikainak

irudien eta audioen osagarri dira

Irratiak eta telebistak gertakarien berezko soinuak eta irudiak erabiltzen dituzte ikus-entzuleei informazioa helarazteko. Oro har, alferrik da hitzez adieraztea berezko soinu eta irudien bidez konta daitekeena. Testuak soinu eta irudien osagarri, indargarri, euskarri izan behar du, ez ordezko.

Deskribapena

I.3.a. Kazetariak prestatzen duen testuaz gain, hauek dira irratiko eta telebistako albisten osagaiak.

- **Elkarrizketa:** kazetari baten eta protagonista baten arteko hizketa.
- **Adierazpenak:** protagonista batek hedabideen aurrean esandako hitzak.
- **Lekukotasuna:** lekuko batek hedabideei eskainitako kontakizuna.
- **Giro-soinua:** gertakariarekin batera sortzen den soinu naturala.
- **Irudi errealak:** mugimenduduna.
- **Argazkia:** finkoa.
- **Infografia:** ordenagailuz sortutako irudia, finkoa zein mugimenduduna.
- **Idazkuna:** pantailan idatzita ageri den testua.

Aholkuak

I.3.1. Euskarazko albistegietan kazetariak euskarazko adierazpenak eta lekukotasunak erabiltzen ditu. Betiere, garbi jakin behar du Euskal Irrati Telebistak ez duela inor derrigortzen nahi ez duen hizkuntzan hitz egi-tera, euskarazko hitzak lortzearren.

Kazetariak hainbat era dauzka euskaraz ez dauden adierazpenez baliatzeko: bere testuan azaltzea, bikoiztea, eta azpidaztea.

Kazetariaren azalpena edo bikoizketa une egokian sartuz gero, bi edo hiru hitz adierazgarrienak entzungai utz daitezke, jatorrizko soinua guztiz estali ordez.

I.3.2. Albistearen osagaietako bat nabarmendu nahi izanez gero, kazetariak berariazko esapideak txerta ditzake testuan: «entzun arretaz», «adi», «ez kendu begirik», «irudietan ikusten duzueenez», «aurrez ohartarazten dizuegu irudiak gordinak direla»...

Esapide horietako batzuk pantailan idazten dira: «bideozale baten irudiak», «artxiboko irudiak», «TV3ek utzitako irudiak», «zuzenean», «telefono bidezko konexioa»...

2. Albiste-testu bikainak

arretaz taxututa daude

Albiste-testu bakoitzak bere egitura berezia du. Egitura berezi horretara heltzeko, kazetariak hiru urrats egiten ditu. Lehenik, aintzat hartzen du testuak zein kokaleku duen albistegiaren barruan, eta zelan lotzen zaien albistegiko beste testu batzuei (2.1.). Bigarrenik, eman beharreko informazioa kontakizun batean antolatzen du (2.2.). Hirugarrenik, kontakizun horretako esaldi bakoitza ondo egina izatea zaintzen du (2.3.).

2.1. Albiste-testu bikainak

programa baten parte dira

Irratiko eta telebistako albistegiak ez dira berriak biltzeko “zakuak”, baizik programa osoak eta bete-bete-koak. Albiste bakoitzak bere lekua du, eta loturak eta erlazioak ezartzen ditu besteekin.

Aldi berean, informazioa ez da testu bakarrean ematen oso-osorik. Gehienetan, berriak atalkatu egiten dira, hau da, berri bakoitzari atal edo pieza bat baino gehiago egokitzen zaio programan.

Horrenbestez, kazetariak pieza bat idazten edo prestatzen duenean, hiru gauza izan behar ditu gogoan: lehenik, pieza hori toki jakin batean kokatuta dagoela albistegiaren barruan; bigarrenik, albiste berak beste pieza batzuk izan ditzakeela; eta, hirugarrenik, albiste beste batzuekin lotuta egon daitekeela.

Deskribapena

2.1.a. Euskal Telebistaren albistegietan pieza hauek erabiltzen dira.

- **Sarrera:** albistearen aurkezpena. Albistearen muina biltzen du bi edo hiru paragrafotan, eta aurkezleak irakurtzen du, kamerari begira dagoela.
- **Kaixoa:** albistegiko lehen sarrera da, ikusleak agurtzeko. Informazio gutxi dakar; gehienez ere, berri nabarmenen baten aipamena.
- **Offa:** testu ez oso luzea, aurkezleak zuzenean irakurtzen duena, pantailan albisteari dagozkion irudiak azaltzen diren bitartean. Aurretik sarrera bat izan dezake.
- **Titularrak:** eguneko berri garrantzitsuenen laburbilduma. Berri bakoitzeko segundo gutxiko off bat prestatzen da, eta ondoren offak batu eta pieza bakarra osatzen da.
- **Atarikoa:** off baten moduko pieza, albistegiaren lehen blokean doana, eguneko berri garrantzitsu baten aurrerapena egiteko.
- **Bideo osoa:** albisteari dagozkion irudiekin eta kazetariak irakurritako testuarekin osaturiko pieza.
- **Tituloia:** informazioaren muina laburbiltzen duen idatzia, era guztietako piezetan jartzen dena. Zati bi ditu: goian, erreferentzia (irudiak kokatzeko datua), eta behean, azpituloia (idea nabarmengarria adierazten duen esaldia).
- **Ikurra:** informazio baten aurrerapena, off gisa emana. Albiste landu baino puntu batzuk aurrerago jartzen da eskaletan, ikuslearen jakin-mina pizteko.
- **Agurra:** albistegiko azken sarrera. Askotan, aurkezleak programazioari buruzko oharren bat edo eguneko efemerideren bat aipatzen du.

2.1.b. Euskadi Irratiaren albistegietan pieza hauek erabiltzen dira.

- **Titularrak:** eguneko berri garrantzitsuenen laburbilduma. Berri bakoitzeko segundo gutxiko testu bat prestatzen da, eta elkarren jarraian irakurtzen dira denak, bi ahotsekin. Titular bakoitza protagonisten ahotsekin indartu ohi da.

- **Atarikoak:** hiru edo lau pieza ez oso luzeak, albistegiaren lehen blokean doazenak, kirolen, trafikoaren eta eguraldiaren aurrerapena egiteko. Protagonisten ahotsekin indartu ohi dira.
- **Flasha:** banakako albiste bat, laburki kontatua. Albistegiaren lehen blokean zein albistegiaren barruan joan daiteke.
- **Sarrera:** albistearen aurkezpena. Albistearen muina biltzen du hiruzpalau lerrotan, eta albistegiaren aurkezle-editoreak irakurtzen du.
- **Kronika:** albistegiko pieza nagusia, minutu bat ingurukoa. Protagonisten adierazpenekin, giro-soinuekin eta kazetariak esaten duen testuarekin osatzen da.
- **Apuntea:** kronika baten osteko pieza motz-motza, aurkezle-editoreak irakurria, albistea ixteko, edo horrekin lotutako beste albiste bat aipatzeko.
- **Txostena:** minutu eta erdi edo bi minutuko pieza, kronika baten osagarri dena, datu biografikoak, historikoak, geografikoak... emateko. Entzungarriago egiteko, adierazpenez eta giro-soinuz hornitu behar da, eta bi ahotsekin irakur daiteke.

Aholkuak

- 2.1.1. Albistegia osatzen duten piezak idazteko, ez dago formula magikorik. Jarraibideak eman litezke, baina lehena eta aurrena zentzuz jokatzeari da.

Adibidez, denboraren berri emateko gero eta esapide korapilatsuagoak azaltzen dira albiste-testuetan, zehatzagoak direlakoan; baina badaude aukera sinpleagoak.

- ✘ Bilboko metroaren bigarren linea astebete barru, **datorren irailaren 23an**, inauguratuko dute.
- ✔ Bilboko metroaren bigarren linea astebete barru, **hilaren 23an**, inauguratuko dute.
- ✘ **Igande honetan** egingo dute Frantzia presidentea aukeratzeko hauteskundeen bigarren itzulia.
- ✔ **Igandean** egingo dute Frantzia presidentea aukeratzeko hauteskundeen bigarren itzulia.
- ✘ Athleticek San Mamesen jokatuko du HJK Helsinkiren aurkako joaneko partida, abuztuaren 23an, **gaueko bederatzietatik aurrera**.
- ✔ Athleticek San Mamesen jokatuko du HJK Helsinkiren aurkako joaneko partida, abuztuaren 23an, **gaueko bederatzietan**.

Ez da alferreko ahalegina informazioa emateko formula klixetuak baztertzea, esate baterako, egitura inpertsonalak.

- ✘ Osoko bilkuraren ostean, **kritikak izan dira Alderdi Popularretik** lehendakariarentzat.
- ✔ Osoko bilkuraren ostean, **Alderdi Popularrak kritikak egin dizkio** lehendakariari.

Albiste-testuetan, formula klixetu nagusietako bat *jarraitu* aditza da.

- ✘ Borrokek **jarraitzen dute** gaur Afganistan iparraldean.
- ✔ **Gaur ere** borroka gertatu dira Afganistan iparraldean.
- ✔ **Oraindik ere** borrokan ari dira Afganistan iparraldean.
- ✔ Borroka **lehengo berean** dira Afganistan iparraldean.

Ez da pentsatu behar, dena dela, *jarraitu* erabiltzea desegokia denik. Desegokia da *jarraitu* erabiltzeagatik zentzu gutxirekin jokatea: ekintza subjektu bihurtzea, lehen informazioa *jarraitu* bidez aurkeztea, eta abar,

- ✘ **Alderdien arteko bilerek jarraituko dute** akordio bat adostu arte.
- ✔ **Alderdiek bilerak egiten jarraituko dute** akordio bat adostu arte.

- ✘ **Aurrera jarraitzen du** oraindik orain BBVAren Tolosako bulegoan izan den lapurretari buruzko ikerketak.
- ✔ Ertzaintzak ikerketa bat **ireki du**, BBVAren Tolosako bulegoan izan den lapurreta argitzeko.

2.1.2. Albistegiko testuen artean loturak egiten dira, aurkezlearen sarreren bitartez batik bat. Izan ere, aurkezleak, informazioa azaltzeaz gainera, albistegiari batasuna ematen dio, eta ikus-entzuleak gidatu egiten ditu.

- ✔ **Mundu zabalera irtenda**, Estatu Batuetan gero eta beldurtuago daude antraxa dela eta. Gaur, beste gutun-azal bat aurkitu dute esporaz beteta.

- ✔ Heriotza baten berri albiste **saioaren azken atalean**. Xanpun bertsolari lapurtarra hil da bart, bihotzekoak jota, 73 urte zituela.

Horrelako loturen bitartez, aurkezleak ikus-entzuleak ohartarazi egiten ditu: mota bereko berriekin segituko dutela, gaia aldatuko dutela... Hainbat formula aski ezagunak dira (*gurera itzulita, gaiez aldatuta, futbolarekin jarraituta...*). Kontuz esapide okerrekin.

- ✘ **Esan**, Osasuna ere lanera itzuli dela, astebetez jai egin ondoren.
- ✔ **Esan behar dizuegu** Osasuna ere lanera itzuli dela, astebetez jai egin ondoren.

- ✘ **Goazen** nazioarteko beste gai **batzuekin**.
- ✔ **Goazen / gatozen** nazioarteko beste gai batzuk **jorratzera**.

- ✘ Trafikoari **dagokionean**, Donostiara sartzeko ilara luzeak eratu dira goizean, Amarako tunelean egiten ari diren obregatik.
- ✔ Trafikoari **dagokionez**, Donostiara sartzeko ilara luzeak eratu dira goizean, Amarako tunelean egiten ari diren obregatik.

2.1.3. Datu bera pieza batean baino gehiagotan azal daiteke, baina beti piezaren estiloa errespetatuta. Telebis-tako titularretan, esate baterako, idazkunak jartzen dira, informazioaren gakoak azpimarratzeko. Oso esaldi laburrak izan behar dute.

«Haur gutxi jaiotzen dela-eta kezkatuta, Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak emango dizkie haurrak izaten dituzten bikoteei».

✔ Diru-laguntzak

«Pinocheten ondorengo lehen presidente sozialista izendatuko dute Txilen. Diktadore ohia ez da ekitaldira joango».

✔ Lagos, presidente

«Berlin deituriko artelana emango dio arratsaldean Eduardo Chillidak Gerhard Schroeder Alemaniako kantzilerrari».

✔ Chillidaren oparia

«Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak lotsagarritzat jo du Historiako Akademiaren txostena, eta manipulazio politikoa izan dela salatu du».

✔ Ikastolak, haserre

Idazkun laburrak prestatzeko modu bat aditza kentzea da.

«Arazorik ez aireportuetan gaur goizean, Frantziako aire-kontrolatzaileen greba bukatu baita. Grebak erabateko jarraipena izan zuen, eta arazo handiak sortu zituen Europan».

✔ Arazorik ez aireportuetan

«Mundu guztiko 1.300 aditu elkarturik daude Bilbon. Aisialdiaren seigarren biltzarra abian da».

✔ Aisialdia, aztergai

«Otsaileko langabezia datuek gorabehera handiak izan dituzte. Gora Bizkaian eta Nafarroan. Behera, aldiz, Gipuzkoan eta Araban. Estatu Espainiarrean ere zertxobait behera».

✔ Gora eta behera

«Adiskidetzearen alde eta Setienek utzitako herentziaren ildotik jardungo duela esan du gaur Uriarte Donostiako gotzain berriak, komunikabideen aurrean egin duen lehen agerraldian».

✔ Adiskidetzearen alde

Aditza erabiliz gero, osorik ipini behar da, laguntzaile eta guzti, osterantzean esaldia iluna eta agramatikala da eta.

«Lehendakariaren ustez, atzoko manifestazioan alderdi politikoen artean ikusitako batasuna eredu izan behar da etorkizunean».

✘ Batasuna eskatu

✔ Batasuna eskatu du

«Bilboko Arte Ederren Museoa fundazio bihurtuko da, eta ateak zabalduko dizkio kapital pribatuari. Administrazio Kontseiluak horrela erabaki du gaur».

✘ Fundazioa egingo

✔ Fundazioa egingo dute

«230 mila ume eta gaztek hasi dute gaur ikasturtea Euskal Autonomia Erkidegoan. “D” eredia aukeratu dute lehenengoz eskolaratu diren ume gehienek».

- ✘ Ikasturtea **hasi**
- ✔ Ikasturtea **hasi da**

Aditzarekin batera «behar», «ahal», «ezin» edo «nahi» badago, ez da beharrezkoa laguntzailea jartzea. Aditzari -ta / -rik eranstea ere ohiko baliabidea da laguntzailea ezabatzeko.

«Austriako presidenteari gaur aurkeztu diote bart liberalek eta kontserbadoreek lortutako gobernu akordioa. Europan, bitartean, Austria baztertzeko eztabaida, airean».

- ✔ **Presidenteak erabaki behar**

«Ordu eta erdi barru hasiko dira Camp Daviden Ehud Barak eta Jassir Arafaten arteko negoziazioak, israeldar eta palestinarren arteko gatazka luzeari amaiera bilatzeko asmoz».

- ✔ **Gatazka amaitu nahi**

«Blokeo egoera larria Belgikan, erregaien prezioen kontrako protestak direla eta. Britainia Handia normaltze-bidean, baina oraindik gaizki».

- ✔ **Belgika, blokeatuta**

«58 etorkin hilik aurkitu dituzte kamioi baten barruan Britainia Handian, Doverreko portuan. Itxuraz, beroagatik itota. Gidaria atxilotu dute».

- ✔ **58 etorkin, hilik**

Dena dela, erakargarriago egiten dira aditzik gabeko esaldiak.

«Bilboko Arte Ederren Museoa fundazio bihurtuko da eta atek zabalduko dizkio kapital pribatuari. Administrazio Kontseiluak horrela erabaki du gaur».

- ✔ **Fundazioa**

«230 mila ume eta gaztek hasi dute gaur ikasturtea Euskal Autonomia Erkidegoan. “D” eredia aukeratu dute lehenengoz eskolaratu diren ume gehienek».

- ✔ **Eskolara!**

“ Les titres d’émissions, de chroniques et de concours produits par la Radio ou la Télévision françaises de Radio-Canada ne doivent contenir aucune faute d’orthographe, de syntaxe ou de grammaire, d’anglicismes, de prononciations erronées ni quelque autre impropriété de nature linguistique. (4) ”
La qualité du français à Radio-Canada

(4) Radio-Canadako irrati edo telebista frantsesek ekoiztutako programen, kroniken eta lehiaketen izenburuetan ez da egongo ortografia-, sintaxi- edo gramatika-akatsik, anglizismorik, ahoskera okerrik edo beste edozelako hizkuntza-arazorik.

2.2. Albiste-testu bikainek

informazioa egokiro antolatuta daukate

Kazetariak kontakizun bat osatu behar du informazioarekin. Datu guztiak hartu, eta ikus-entzuleek erraz harrapa dezaketen testu batean antolatu behar ditu, interesa eta arreta galarazi gabe, gainera. Testugintzako lehen baliabidea kontakizunaren haria da. Bigarrena, gramatika.

Deskribapena

2.2.a. Kontakizuna antolatzeko, eredu bat baino gehiago dago.

- **Piramide iraulia:** kazetaritza idatzian erabilia. Testuaren hasieran bost koordinatuak ematen dira (nork, zer, noiz, non eta zergatik), eta, horren ondoren, gainerako datuak jartzen dira, garrantzitsuenetik garrantzi txikienera.
- **Piramide zuta:** ahozko kazetaritzan erabilia. Albistea kontatzen hasteko, datu bakar bati ematen zaio arreta osoa, eta gero gainerako datuak eransten dira banan-banan.

2.2.b. Kontakizuna osatzeko, datuak ez dira beste barik eransten; elkarrekin josi behar dira. Hizkuntzak hainbat tresna eskaintzen ditu.

- **Lokailuak, juntagailuak eta menderagailuak:** bi datu lotzen dituen logika zein den agertzen dute. Lokailu eta juntagailuen bidez, logika hauen berri eman daiteke: emendioa (*ere, eta, gainera*), aukeraketa (*osterantzean, edo, ala*), aurkaritza (*aldiz, baina, ordea, baizik*), ondorioa (*beraz, orduan*), kausa (*zeren, izan ere*), eta enumerazioa (*lehenik, hala nola*). Menderagailuen bidez, beste askoren berri: denbora (*-nean...*), kausa (*-lako...*), baldintza (*ba-...*), eta abar.
- **Artikuluak eta erakusleak.** Datuak aurkezten dituzte: zein den berria, zein den ezaguna, non aipatu den lehenago...
- **Ordezkoak:** gauza bera modu batean baino gehiagotan aipatzea ahalbidetzen dute.

Aholkuak

2.2.1. Zeharo desegokia da informazio guztia esaldi bakarrean biltzea edo kargatzea. Datuak banan-banan eman behar dira, baina testu sinple, gatzgabe eta tristeetan jausi barik.

- ✘ Asteazken gauean, ehunka lagunek afari batez Pazko juduaren hasiera ospatzen zuten Netaniako hotel batean Hamas talde militarreko gazte batek aldean zeraman bonbak leher egin zuen, erasotzaileaz gain 19 pertsona hil eta 130 zaurituz.
- ✔ Asteazken gauean, Hamas talde militarreko gazte batek aldean zeraman bonba leherrarazi zuen Netaniako hotel batean. Barruan ehunka lagun afaritan zeuden, Pazko juduaren hasiera ospatzeko. Erasotzaileaz gainera, 19 pertsona hil ziren, eta 130 zauritu.

2.2.2. Lokailu eta juntagailu bakoitzak bere tokia du perpausaren barruan. Batzuek kokaleku bat baino gehiago har dezakete.

- ❖ Lehendakariak ordezkari guztiak gonbidatu ditu. PSEkoek, ordea, nahiago izan dute urteurrena euren egoitzan ospatu.
- ❖ Lehendakariak ordezkari guztiak gonbidatu ditu. PSEkoek nahiago izan dute, ordea, urteurrena euren egoitzan ospatu.

Beste batzuek toki finkoa dute. Aipagarriena, ere. Ere lokailua gaineratutako datuaren ondoren jarri behar da; ez beste inon.

- ❖ Gaur, Ordiziako azokan piperrak garestitu egin dira. Baita ere ilarrak.
- ❖ Gaur, Ordiziako azokan piperrak garestitu egin dira. Baita ilarrak ere.
- ❖ Gaur, Ordiziako azokan piperrak garestitu egin dira, eta ilarrak ere (bai).

- ❖ Ipar haizeak lainoak ekarriko ditu ere gurera.
- ❖ Ipar haizeak lainoak ere ekarriko ditu gurera.

Beste aukera batzuk ere badaude.

- ❖ Esan behar da ere Rominger dugula gizonik indartsuena tropelean.
- ❖ Esan behar da, era berean, Rominger dugula gizonik indartsuena tropelean.

2.2.3. Lokailu, juntagailu eta menderagailu bakoitzak bere esangura du. Batzuk, baina, modan jarri dira, eta aliritzian erabiltzen dira datuak elkartzeko, egiazko esangurari jaramon egin barik.

- ❖ Pertsona bat hil zen atzo Gasteizen, lantegiko teilaturik erorita, nahiz eta enpresak dioen ez zela bertako langilea.
- ❖ Pertsona bat hil zen atzo Gasteizen, lantegiko teilaturik erorita. Enpresak dio ez zela bertako langilea.

Beste kasu batzuetan, antzeko itxura dutenen esangurak nahasi egin dira.

- ❖ Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat ez ezik.
- ❖ Pilotari gazteak kategoria guztietako txapelak irabazi ditu, bat izan ezik.

Asko zabaldu da ordea datu berriak gaineratzeko erabiltzea, baina ordea (eta ostera, aitzitik...) aurkaritzako lokailua da. Datuak gehitzeko edo gaineratzeko funtzioa hobeto betetzen dute bestalde eta berriz lokailuek.

- ✘ Brasilek 3 eta I galdu du Bolivian. Munduko Txapelketan izan nahi badu, nahitaez irabazi behar dio Venezuelari hurrengo partidan. Ekuador, **ordea**, lehen aldiz sailkatu da Munduko Txapelketarako.
- ✔ Brasilek 3 eta I galdu du Bolivian. Munduko Txapelketan izan nahi badu, nahitaez irabazi behar dio Venezuelari hurrengo partidan. Ekuador, **bestalde**, lehen aldiz sailkatu da Munduko Txapelketarako.

Kontrakotasuna adierazteko, okerra da *baino* erabiltzea. Zeregin hori betetzeko, *barik* postposizioa dago.

- ✘ Arafatek adierazi du Palestinako arazoa konpontzeko modua, bide militarra **baino**, bakebidea dela.
- ✔ Arafatek adierazi du Palestinako arazoa konpontzeko modua, bide militarra **barik**, bakebidea dela.

Nahiago izanez gero, beste egitura batzuetara jo daiteke: *baina* juntagailua, *baino...* gehiago konparazio osoa, eta abar.

- ✔ Arafatek adierazi du Palestinako arazoa konpontzeko modua, bide militarra **ez, baina** bakebidea dela.
- ✔ Arafatek adierazi du Palestinako arazoa konpontzeko, bide militarra **baino hobea** dela bakebidea.
- ✘ Basagoitiren iritziz, Rubalcaba, hautagai gisa **baino**, kazetari gisa aritu zen hauteskunde-debatean.
- ✔ Basagoitiren iritziz, Rubalcaba, hautagai gisa aritu **beharrean**, kazetari gisa aritu zen hauteskunde-debatean.

Datu bi batzeko, *eta* erabiltzen da. Alferrekoa eta okerra da *eta* beste zerbaitekin ordezkatzeko moda.

- ✘ Bilboko **nahiz** Biarritzeko udal ordezkariak bertan zirela, sei eta erdietan zabaldu da erakusketa.
- ✔ Bilboko **eta** Biarritzeko udal ordezkariak bertan zirela, sei eta erdietan zabaldu da erakusketa.
- ✘ Atentatua gaitzesteko, udal bozeramaileek adierazpen bat adostu dute, herritarrei udaletxe aurrean biltzera **deitu dietelarik**.
- ✔ Atentatua gaitzesteko, udal bozeramaileek adierazpen bat adostu dute, **eta** herritarrei udaletxe aurrean biltzera deitu diete.
- ✘ Zuri-gorriek zazpigarren minutuan sartu zuten lehen gola, partidan lau gol **egiteko** guztira.
- ✔ Zuri-gorriek zazpigarren minutuan sartu zuten lehen gola, **eta** partidan lau gol **egin zituzten** guztira.

- ✘ Goizeko saioan Telefonica 0,3 puntu **igo bada**, arratsaldekoan Banco Popular 0,5 aurreratu da.
- ✔ Goizeko saioan Telefonica 0,3 puntu **igo da, eta** arratsaldekoan, **berriz**, Banco Popular 0,5 aurreratu da.
- ✘ Nanterreko udal bilkura amaitutakoan, gizon bat tiroka hasi da, zortzi lagun **zaurituz**.
- ✔ Nanterreko udal bilkura amaitutakoan, gizon bat tiroka hasi da, **eta** zortzi lagun **zauritu** ditu.

Enumerazioetan okerra da *bezalako*. Aukera zuzenak asko dira: *besteak beste*, *adibidez*...

- ✘ Festaroa kantaldian, azken hogeitun urteetan ezagun egin zaizkigun Imanol eta Niko Etxart **beza-lako** abeslariak elkartu ziren.
- ✔ Festaroa kantaldian, azken hogeitun urteetan ezagun egin zaizkigun abeslariak elkartu ziren: Imanol, Niko Etxart **eta beste asko**.
- ✘ Bilboko udal haztegietan haritza, pagoa eta artea **bezalako** zuhaitzak landatzen hasi dira.
- ✔ Bilboko udal haztegietan zuhaitzak landatzen hasi dira, **hala nola** haritza, pagoa eta artea.
- ✘ Zarauzko beilatokian ipini dute Francisco Escudero maisuaren hil-kapera. Atzo hil zen, 89 urterekin, *Gernika, Zigor eta Illeta* **bezalako** obren autorea.
- ✔ Zarauzko beilatokian ipini dute Francisco Escudero maisuaren hil-kapera. Atzo hil zen, 89 urterekin, *Gernika, Zigor, Illeta* **eta beste hainbat** obra handiren autorea.
- ✘ Gabonetan legatza eta arkumea **bezalako** produktuak garestitu egiten direnez, abenduan prezioen indizea batez bestekoa baino gehiago igotzen da.
- ✔ Gabonetan legatza, arkumea eta **era horretako** produktuak garestitu egiten direnez, abenduan prezioen indizea batez bestekoa baino gehiago igotzen da.

“ When you use a pronoun in broadcast copy, be sure there is no question what its antecedent is. If there is any chance of confusion, repeat the noun the pronoun replaces. (5) ”
DIS Broadcast Writing Style Guide

(5) Albiste-testu batean izenordain bat erabiltzen duzunean, ziurta ezazu ez dagoela zalantza zein den beraren aurrekaria. Nahasteko arriskua badago, errepika ezazu izenordainak ordezkatzeko duen izena.

2.2.4. Zerbait edo norbait lehen aldiz aipatzen denean, kontakizunera ekartzen denean, *bat* mugatzailea erabiltzen da.

- ✔ ***Katu bat*** agertu zitzaion bide erdian, eta ez zuen astirik izan autoa gelditzeko. Kolpeagatik autoaren kontrola galdu, eta ***zuhaitz bat*** jo zuen.
- ✔ Errusian, ***eraikin bat*** behera erori da ***gas eztanda batengatik***, eta zortzi lagun daude azpian harrapatuta.

Hitza zentzu generikoan erabiliz gero, *bat* mugatzailearen ordean *-a* artikulua erabil daiteke.

- ✔ Eskuan ***aizto bat*** zeukala hurbildu zitzaion lapurra, eta bankutik atera berri zuen diru guztia ostu zion.
- ✔ Eskuan ***aiztoa*** zeukala hurbildu zitzaion lapurra, eta bankutik atera berri zuen diru guztia ostu zion.
- ✔ ***Bihotzekoak*** jota hil da John Smith laboristen burua.

Lehen aipamena egiteko, artikulua hurbilak ere balio du, betiere egoerak esataria eta ikus-entzuleak biltzen baditu.

- ✔ Aurtengo ardoak oso egokiak dira zahartze prozesurako, eta batez beste 13,26ko graduazioa daukate, ***urteotako*** altuena.
- ✔ ***Asteon*** inauguratuko da Bilboko metroaren bigarren lineako lehen zatia. ETBk zuzenean eskainiko dizue ekitaldia.
- ✔ Nafarroako Unibertsitateak egindako ikerketaren arabera, EAeko eta Nafarroako ***herritarren*** artean, internautek denbora gehiago egiten dute egunero egunkariak irakurtzen, Internet erabiltzen ez dutenek baino.

2.2.5. Aipatutako zerbaiten edo norbaiten kideko bat edo gehiago aurkezteko, *beste* erabiltzen da. Erreferentzia ezaguna bada, *-a(k)* artikulua eransten zaio sintagmari. Erreferentzia ezezaguna bada, *bat(zuk)* zenbatzailea jartzen da.

- ✘ Hiru egunez Lizarran egon ondoren, ***beste herrietara*** eramango dute Erramun Landaren erakusketa.
- ✔ Hiru egunez Lizarran egon ondoren, ***beste herri batzuetara*** eramango dute Erramun Landaren erakusketa.
- ✘ Goizeko bileran enpresak eta sindikatuek lotuta utzi dituzte aurtengo hitzarmeneko puntu nagusiak. Arratsaldean ***bilera berri bat*** egingo dute, azken xehetasunak adosteko.
- ✔ Goizeko bileran enpresak eta sindikatuek lotuta utzi dituzte aurtengo hitzarmeneko puntu nagusiak. Arratsaldean ***beste bilera bat*** egingo dute, azken xehetasunak adosteko.

Batzuetan, esapide bihurri samarrak osatzen dira *beste*-rekin.

- ✘ Giltza elektronikoaz gainera, **beste proiektu gehiago** ditu esku artean.
- ✔ Giltza elektronikoaz gainera, **beste proiektu batzuk** ditu esku artean.
- ✔ Giltza elektronikoaz gainera, **proiektu gehiago** ditu esku artean.

Azkenaldian *beste behin* asko ugaritu da albiste-testuetan. Berez, bada *berriz (ere)* edo *berriro (ere)* esapideen parekoa, baina ez lieke lekua kendu behar.

- ✔ Serbiarrek **berriro** eraso diete Nazio Batuetako kasko urdinei. Dagoeneko, sei kasko urdinek galdu dute bizia.

2.2.6. Testuan lehenago aipatutako datuak seinatzeko, bigarren graduko erakusleak erabiltzen dira: *hori* eta *horiek*.

- ✘ Peugeoteko gidaria arin zaurituta atera dute suhiltzaileek, hiru ordu lanean aritu eta gero. **Hau** dela eta, Malmasin ia goiz osoan egon da itxita Donostiako norabidean.
- ✔ Peugeoteko gidaria arin zaurituta atera dute suhiltzaileek, hiru ordu lanean aritu eta gero. **Hori** dela eta, Malmasin ia goiz osoan egon da itxita Donostiako norabidean.
- ✘ Belengo Jaiotzaren basilikan 200 palestinarrek hartu dute babesa. **Hauen** artean emakumeak eta haurrak daude.
- ✔ Belengo Jaiotzaren basilikan 200 palestinarrek hartu dute babesa. **Horien** artean emakumeak eta haurrak daude.

Artikulu hurbila ere baliagarria da.

- ✔ Aire konpainia nagusiek hegazkinetan segurtasuneko ateak ipintzea erabaki dute. Atzo aurkeztu zituzten **ateok**, baina eztabaida ere sortu da, pilotuek arriskutsua baiteritzote kanpotik zabaldu ezin izateari.

Nahasteko arriskurik ez badago, askotan alferrekoa da datuak lehenago aipatu direla seinatzaren aritza. Nahikoa izaten da artikulu arrunta. Edo ezer ez ipintzea.

- ✔ Hurrek egindako marrazkiak Donostiako Orfeoiaren mendeurrena izeneko liburuan bildu dira. Ostiraletik aurrera, **marrazki horiek** Mitxelena kulturunean izango dira ikusgai.
- ✔ Hurrek egindako marrazkiak Donostiako Orfeoiaren mendeurrena izeneko liburuan bildu dira. Ostiraletik aurrera, **marrazkiak** Mitxelena kulturunean izango dira ikusgai.
- ✔ Hurrek egindako marrazkiak Donostiako Orfeoiaren mendeurrena izeneko liburuan bildu dira. Ostiraletik aurrera, Mitxelena kulturunean izango dira ikusgai.

2.2.7. Ikus-entzuleei “begien aurrean” jartzen zaiena seinatzeko, lehen graduko erakusleak erabiltzen dira: *hau* eta *hauek*.

- ✔ Neguko Euskal Soziometroaren emaitzak kaleratu ditu gaur Lehendakariak. Datuen artean aipagarriena, [hau](#): EAEko herritarrok gero eta konfiantza txikiagoa dugu alderdi politikoetan.

Telebistako pantailan ageri dena, beraz, berdin seinatzzen da.

- ✔ Furgoneta [hau](#) Mercedes Benz enpresak egin du Gasteizen. Hemendik aurrera, furgoneta berri hau eta Mercedes Benzek egiten dituen ibilgailu guztiak Pasaiaiko portutik esportatuko dituzte.

Albistearen ardatza zein den gogorarazten denean, halaber, lehen gradua. Izan ere, albistearen ardatza ez da “begien aurretik” kentzen denbora guztian.

- ✔ Gaur gauean, “Zine Oro” saioak *Gudu zelaia: Lurra* filma emango du. Filma Zientziologiaren fundatzaileak idatzitako zientzia-fikzioko eleberri batean dago oinarrituta, eta John Travolta du protagonista. Zine kritikari askok diote [film hau](#) historiako pelikularik txarrena dela, baina zientzia-fikzioaren eta genero fantastikoaren zaleek gustura ikusiko dute.

2.2.8. Esandakoa ez errepikatzearen, ordezkio moduan hirugarren graduko erakusleak erabil daitezke: *hura* eta *haiek*.

- ✔ Euskal Autonomia Erkidegoan irailaren 10ean hasiko dira haurrak eskolara. Irakasleak ez dira [haiekin](#) batera hasiko, irailaren lehen egunetik ari baitira ikasturte berria prestatzen.
- ✔ Legebiltzarrak Joakin Okiñena abokatu izendatu du Ararteko. Orain, [haren](#) ondokoa nor izango den negoziatu behar dute alderdiek.

Bertan adberbioa antzera erabiltzen da.

- ✔ Bartzelonan prest dute guztia Europar Batasunaren goi-bilera hartzeko. Dagoeneko [bertan](#) dira gobernuburu gehienak.

Azkenaldian, *bertan* errukirik gabe erabiltzen da, eta ia-ia desagerrarazi du *han(txe)* gure testuetatik.

- ✔ Bartzelonan prest dute guztia Europar Batasunaren goi-bilera hartzeko. Dagoeneko [hantxe](#) dira gobernuburu gehienak.

Gehienetan, gainera, *bertan* alferreko makulua baino ez da.

- ✘ Almeriako arrantzaleek [bertako](#) portua blokeatu dute, eta Marokoko matrikula zuten kamioiei bidea itxi.
- ✔ Almeriako arrantzaleek portua blokeatu dute, eta Marokoko matrikula zuten kamioiei bidea itxi.

- ✘ Hegoafrikan *Apartheid* sistema desagertu zen, eta gehiengo beltza dago gobernuan. Hala ere, oraindik beltzen aurkako indarkeria da nagusi **bertan**.
- ✔ Hegoafrikan *Apartheid* sistema desagertu zen, eta gehiengo beltza dago gobernuan. Hala ere, oraindik beltzen aurkako indarkeria da nagusi.

2.2.9. Esandakoa ez errepikatzearren, ordezeko moduan sinonimoak erabil daitezke.

- ✔ **Osasunak** larrutik ordaindu zuen bere ausardia Riazor futbol zelaian. Markagailuan aurretik hasi zen, baina Deporrek ez zion atrebentzia barkatu, eta bost gol sartu zizkion **Lotinaren taldeari**.

Sinonimoek ikus-entzule gehienek erraz ulertzeko modukoak izan behar dute. Kutsu jasoegia, lokalegia edo iraingarria dutenak baztertu egin behar dira.

- ✘ **Erromako patriarkak** Italiako hainbat agintari agurtu ditu Eguberritako mezaren ostean. **Aita Santuak** behartsuenen aldeko mezua zabaldu die.
- ✔ **Aita Santuak** Italiako hainbat agintari agurtu ditu Eguberritako mezaren ostean. **Joan Paulo II.ak** behartsuenen aldeko mezua zabaldu die.

Askotan, aukerarik onena elipsia da. Alegia, ezer ez jartzea: ez sinonimorik, ez erakuslerik, ez ezer.

- ✘ Gurutze Gorriko kideak izurdea itsaso zabalera eramaten saiatu dira goiz osoan. Ezin izan dute **helburu hori bete**, eta olatuek Ereagako hondartzaraino eraman dute animalia.
- ✔ Gurutze Gorriko kideak izurdea itsaso zabalera eramaten saiatu dira goiz osoan. Ezin izan dute, eta olatuek Ereagako hondartzaraino eraman dute animalia.
- ✘ Rostropovitx maisuaren kontzerturako sarrerak salgai jarri, eta berehala amaitu ziren **guztiak**.
- ✔ Rostropovitx maisuaren kontzerturako sarrerak salgai jarri, eta berehala amaitu ziren.

“
**Telebistaz kanpoko jendea-
 ri galderak edo elkarrizketak
 egitean, jakina, gonbidatuak
 berak aukeratuko du berak
 erabili nahi duen hizkera.**
 ”
*Euskarazko albistegietarako
 esku-liburua I*

2.3. Albiste-testu bikainek

perpausak ondo osatuta dauzkate

Euskarazko perpausaren barruan osagaiak askatasun handia daukate. Ezaguna da, esaterako, «eman dio», «aitak», «haurrari» eta «sagarra» osagaiak 24 eratara ordena daitezkeela.

Testu baten barruan askatasun hori asko murrizten da. Izan ere, kontakizun bat egiten denean, «informazio ezaguna» / «informazio berria» bikoteak erabat baldintzatzen du perpausaren antolamendua.

Albiste-testuetan bikote horren jokia ondo zainduz gero, asko laguntzen zaio entzuleari.

Deskribapena

2.3.a. Funtzioen ikuspegitik, hauek dira perpausaren osagai garrantzitsuenak.

- **Aditza:** perpausaren ardatza. Gainerako osagaiak aditzari itsasten zaizkio.
- **Subjektua:** aditzak adierazten duen ekintza egiten edo gauzatzen duen osagaia.
- **Berezko osagarria:** aditzak bere ondora erakartzen duen osagaia.
 - Zentzuagatik erakar dezake: *joan* aditzaren berezko osagarria «etxera» da; *argitaratu* aditzarena, «liburua»; *izendatu* aditzarena, «alkate», eta abar.
 - Funtzio gramatikalagatik erakar dezake: adberbio graduatuak (*hobeto, nahiago, ari-negi...*); moduzko adberbioak (*argi, nekez, prest...*); denborazko adberbioak (*beti, berehala, bertan, laster...*); *dena* izenordaina (*dena, denak, denok, den-dena*).

subjektua	beste osagai batzuk	berezko osagarria	aditza
-----------	---------------------	-------------------	--------

Horri ordena neutroa esaten zaio.

2.3.b. Informazioaren ikuspegitik, esaldiak hiru gune garrantzitsu ditu.

- **Aditza:** perpausaren ardatza. Gainerako osagaiak baino informazio gehiago dakar.
- **Mintzagaia:** perpausaren abiapuntutzat ematen den informazio ezaguna.
- **Galdegaia:** perpausaren ematen den informazio berria.

mintzagaia(k)	galdegaia	aditza
---------------	-----------	--------

Aditzaren ostean beste bi gune aurki ditzakegu.

- **Hizpideabarra:** perpausaren abiapuntutik kanpo utzi den informazio ezaguna.
- **Gehikuntza:** informazio berri gehiago, aditz gabeko esaldi modura erantsia.

mintzagaia(k)	galdegaia	aditza	hizpideabarra(k)	gehikuntza(k)
---------------	-----------	--------	------------------	---------------

2.3.c. Perpausak ordena neutroan sortzen dira pertsonaren burmuinean —nolabait esatearren—, baina, komunikazio-ekintza batean erabiltzen direnean, esaldi bihurtzen dira, eta mintzagai-galdegai antolamendura egokitzen dira.

«Nahi duenean, ondo egiten ditu gauzak mutil horrek, inork ezer esan gabe».

mintzagaia: nahi duenean

galdegaia: ondo

aditza: egiten ditu

hizpideabarra: gauzak

hizpideabarra: mutil horrek

gehikuntza: inork ezer esan gabe

“ Mintzagaia eta gehikuntza esaldiaren prologoaren eta epilogoaren antzekoak dira, hurrenez hurren: esaldiaren parte dira, baina gunetik apur bat bereziak. ”

Puntuazioa

Aholkuak

2.3.1. Estrategia ona da informazioa aditzaren inguruan antolatzea. Batzuetan, testu arinagoak eta samurragoak lortzen dira aditza elidituz, baina guztiz baztertzekoa da aditzik gabeko sintaxia.

- ✘ Alokairuaren merkatua malgutzeko neurriak, uda osteko lehen ministro kontseiluan: askatasuna alokairuaren zenbatekoa berriztatzeko, eta askatasuna ordaintzen ez duen maizterra kanporatzeko.
- ✔ Alokairuaren merkatua malgutzeko neurriak **hartu ditu** uda osteko lehen ministro kontseiluak: askatasuna **izango da** alokairuaren zenbatekoa berriztatzeko, eta askatasuna **izango da** ordaintzen ez duen maizterra kanporatzeko.
- ✘ Aritz Adurizek gaueko lehena, buruz. Eta lehen zatia bukatu aurretik, erreskan hurrengo gol biak. Susaetak, buruz, bi eta hutsekoa korner-jaurtiketa honetan. Eta Iñigo Perezek, falta jaurtiketa hau, zuzenean sare barrura.
- ✔ Aritz Adurizek **sartu zuen** gaueko lehena, buruz. Eta lehen zatia bukatu aurretik, erreskan **etorri ziren** hurrengo gol biak. Susaetak, buruz, bi eta hutsekoa **egin zuen** korner-jaurtiketa honetan. Eta Iñigo Perezek, falta jaurtiketa hau, zuzenean **bidali zuen** sare barrura.

Aditza presente egonda ere, albiste testuak alferrik korapilatzen dira askotan, perpausaren osagaiak aditz horri itsatsi beharrean izen bati itsasteagatik.

- ✘ Lehen ministroak gatibu britainiarraren berehalako **askapena** eskatu du.
- ✔ Lehen ministroak gatibu britainiarra berehala **askatzeko** eskatu du.

- ✘ Artezilariek gutxienez bi urte beharko dituzte esparru honetako mina guztien **indargabeke-tarako**.
- ✔ Artezilariek gutxienez bi urte beharko dituzte esparru honetako mina guztiak **indargabetzeko**.

- ✘ Hainbat taldek protestaldiak antolatu dituzte Espainiako Gobernuak Meliton Manzanas polizia-buru frankistari emandako **dominaren kontra**.
- ✔ Hainbat taldek protestaldiak antolatu dituzte, Espainiako Gobernuak Meliton Manzanas polizia-buru frankistari domina **emateagatik**.

Oro har, osagaiak izenaren menpetik ateraz gero, ordenamendu arazo asko gaindi daitezke.

- ✘ **Josu Lartategik euskaraturiko Bukowskiren Pulp eleberria** argitaratu du Txalapartak.
- ✔ Bukowskiren Pulp eleberria **argitaratu du** Txalapartak, Josu Lartategik euskaraturik.

- ✘ Santiagoko eskoletan gero eta ume gutxiago hasten dira tabakoa erretzen, **Txileko Gobernuaren eskola osasunari buruzko urteroko planari** esker.
- ✔ Santiagoko eskoletan gero eta ume gutxiago hasten dira tabakoa erretzen, Txileko Gobernuak eskoletan osasuna bultzatzeko urtero **prestatzen duen** planari esker.

2.3.2. Normalean ordena neutroa erabiltzen da perpausa antolatzeko. Arreta edo ardura, beraz, «berezko osagarria + aditza» multzoan jarriko da.

- ✔ Bilboko Arte Ederren Museoa **fundazio bihurtuko da**, eta **ateak zabalduko dizkio** kapital pribatuari.

- ✔ Eguneko lehen istripua **goizaldean gertatu da**. 43 urteko gizon batek **horma bat jo du** autoarekin, eta **bertan hil da**.

- ✔ Euskal Herriko haurrek egun ederra pasatuko dute bihar. **Den-denak daude** gonbidatuta Bilbora, Betizuen lehen jaialdira.

Mendeko perpausetan ordena neutroa aurkituko da normalean.

- ✔ Gobernuak [hauteskundeak aurreratzen baditu](#), txosten-batzordearen lana bertan behera geratuko da.
- ✔ Arbitroak txartel gorria atera zion, aurkaria [ukabilka jotzeagatik](#).

Zaio erako laguntzailea hartzen duten aditzetan, berezko osagarria gauza bat izaten da: *erori* aditzaren berezko osagarria «hortza» da; *gustatu* aditzarena, «beldurrezko filmak», eta abar. Halako aditzen subjektu logikoa *nori*-dun osagaia izaten da, eta berori jartzen da perpausaren buruan.

- ✔ Supermerkatu bateko langileei [Gabonetako loteria tokatu zaie](#), eta lanera ez itzultzea erabaki dute.

2.3.3. Kontakizun baten hariari jarraitzen zaionean, informazio ezaguna / informazio berria oposizioa gertatzen da. Orduan, perpausa antolatzeke arreta edo ardura «galdegaia + aditza» multzoan jartzen da.

- ✔ Irudi hauek ondo baino hobeto adierazten dute zein den egoera Ekialde Hurbilean. Atentatugile suizida batek aldean zeraman bonba leherrarazi du autobus baten barruan Afula herrian. Eztandak [atentatugilea eta israeldar bat hil ditu](#).

Informazio ezaguna / informazio berria oposizioa ez da beti gertatzen. Kontakizun bati ekiten zaionean, kontakizun baten barruan haria errotik aldatzen denean... negoziatu barik dago zer informazio ematen den ezaguntzat, zer aurkezten den abiapuntu edo testuingurutzat. Hortaz, alferrik aritzea litzateke informazio berria zein den zehaztu nahi izatea, alegia, galdegai bila hastea. Titularretan, esate baterako, horixe gertatzen da. Ordena neutroa dagokie, beraz.

- ✘ Kaxiano hil [egin](#) da.
- ✔ Kaxiano hil da.

- ✘ Fiskaltzaren eta Estatuko abokatuaren arabera, [Batasunak Donostian deitutako manifestazioan entzun ziren](#) ETAREN aldeko oihuak eta Ertzaintzaren kontrakoak.
- ✔ Fiskaltzaren eta Estatuko abokatuaren arabera, [ETAREN aldeko oihuak eta Ertzaintzaren kontrakoak entzun ziren](#) Batasunak Donostian deitutako manifestazioan.

2.3.4. Euskaraz galdegaiaren lekuan jartzen da nabarmendu nahi den informazio berria. Gaztelaniaz, berriz, perpaus erlatiboak eta perpaus pasiboak erabiltzen dira horretarako. Euskaraz ez da beste hizkuntza batzuen estrategietara jo behar.

- ✘ Hasi baino ez da egin sagardotegi denboraldia, eta dagoeneko [pertsona asko dira](#) Astigarraga aldera [jo dutenak](#).
- ✔ Hasi baino ez da egin sagardotegi denboraldia, eta dagoeneko [jende askok jo du](#) Astigarraga aldera.

- ✘ Lankidetza-hitzarmen bat sinatua izan da Europar Batasunaren eta Poloniaren artean.
- ✔ Europar Batasunak eta Poloniak lankidetza-hitzarmen bat sinatu dute.

Perpau pasiboen bidez, batzuetan, subjektua ezkutatu edo isildu nahi izaten da, beste barik. Euskaraz nahikoa da hirugarren pertsona plurala erabiltzea, subjektu jakinik ez adierazteko, alegia, perpau inpertsonalak egiteko.

- ✘ Agiria udalbatzan eztabaidatuko da, eta onartuz gero Ingurumen Ministerioari eta Ebroko Uren Partzuergoari bidaliko zaie eskaera.
- ✔ Agiria udalbatzan eztabaidatuko dute, eta onartuz gero Ingurumen Ministerioari eta Ebroko Uren Partzuergoari bidaliko diete eskaera.

2.3.5. Ezezko perpausetan ezetzak eta aditzak osaturiko multzoak du informazio-kargarik handiena. Komunikazio-estrategia ona da multzo hori perpausaren bururantz ekartzea.

- ✘ Irudiotakoak azalpen handirik ez du behar.
- ✔ Irudiotakoak ez du behar azalpen handirik.
- ✘ Brouard familiak hilketaren sumarioa berriz irekitzea nahi du, Morcillo inputatu gisa epai deza-ten. Hala ere, Txema Montero Brouardtarren abokatuaren ustez, zaila da kasua berriz irekitzea, ikerketak oinarritzeko adierazpen garrantzitsurik ez baitago.
- ✔ Brouard familiak hilketaren sumarioa berriz irekitzea nahi du, Morcillo inputatu gisa epai deza-ten. Hala ere, Txema Montero Brouardtarren abokatuaren ustez, zaila da kasua berriz irekitzea, ez baitago ikerketak oinarritzeko adierazpen garrantzitsurik.

Ezetzak ukatzen duen elementua —*ukagaia*— testuinguruak argitzen du zein den. Ukagaiak ez du leku finkorik perpausaren, baina joera handia dago aditzaren barruan txertatzeko. Desegokia da aditz barruko toki hori osagaiz zamatzea.

- ✘ Gobernu kanpoko erakunde batzuek salatu dutenez, poliziak ez zien etorkinei galdeketa-
ren aurretik jatekorik edo edatekorik eman.
- ✔ Gobernu kanpoko erakunde batzuek salatu dutenez, galdeketa-
ren aurretik poliziak ez zien
jatekorik edo edatekorik eman etorkinei.

2.3.6. Informazio berria aditza bera denean, **egin** tartekatzen da.

- ✔ Ikusleak bultzaka hasi ziren, eta segurtasun-hesia apurtu egin zen.

Albiste-testuetan asko zabaldu da *egin* tartekatzea behar ez denean. Hiztun askok esangura “sendoa” duten aditzak hankamotz igartzen dituzte *egin* tartekatu barik, baina jokabide desegokia da.

- ✘ Athleticek 3 eta I **irabazi egin dio** Betisi.
- ✔ Athleticek 3 eta I **irabazi dio** Betisi.

- ✘ Euskarazko eredia %10 **igo egin da** aurtengo matrikuletan.
- ✔ Euskarazko eredia %10 **igo da** aurtengo matrikuletan.

Beste batzuetan, aditza aurreratzeko trikimailu bat da *egin* tartekatzea, baina hau ere jokabide desegokia da.

- ✘ Pirateriak irabaziak murrizten dizkio musikaren industriari. Horrez gainera, talde hasi berriei **kendu egiten die** profesional moduan hasteko aukera.
- ✔ Pirateriak irabaziak murrizten dizkio musikaren industriari. Horrez gainera, talde hasi berriei profesional moduan hasteko aukera **kentzen die**.

2.3.7. Ahozko erabileran aukeran dago galdegaia aditzaren ondoren jartzea. Izan ere, aditzak galdegaiarekin osatzen duen multzoa doinuerak finkatzen du, eta ez osagaien ordenak.

Idatzizko euskaran «galdegaia + aditza» ordena nagusitu da, ezinezkoa baita doinuaz baliatzea zentzua argitzeko. Definizioetan eta adierazpenen kontaketan, dena dela, perpaus-motak berak argitzen du zentzua, eta orduan eragozpen barik jar daiteke galdegaia aditzaren atzean.

Albiste-testuetan, ahoz erabili arren, ez dago ohiturarik «aditza + galdegaia» ordenara jotzeko, baina beldur gabe erabili beharko litzateke idatziz ere erabiltzen den kasuetan. Esate baterako, atribuzio-perpausetan, definizioak emateko.

- ✔ Batasunak kanpaina pedagogiko bat antolatu du, autodeterminazioaren kontzeptua azaltzeko euskal herritar guztiei. Autodeterminazio eskubidea **da hitza herritarrei ematea**, euren etorkizuna erabaki dezaten. Batasunaren iritziz, hor dago Euskal Herriko gatazka politikoa gainditzeko gakoa.

Halaber, perpaus osagarrietan, adierazpenen berri emateko.

- ✔ Atarrabiako laborategia behien entzefalopatiaren analisi lasterrak egiten hasi da gaur. Nafarroako Nekazaritza kontseilariak **jakinarazi du bi astez analisiak bikoiztuta egingo dituztela**: bertan eta Madrilen.

2.3.8. Mintzagaia —lehendik ezagun den informazioa— lokailu baten bidez nabarmendu daiteke.

- ✔ Euskal futbol taldeek entrenamendua izan dute gaur. Realak, Alavesek eta Osasunak goiz eta arratsaldeko saioak izan dituzte. **Athletic**, berriz, goizean bakarrik aritu da.

Mintzagaia hitz bakarrean bildu beharrean esaldi oso batean biltzen bada, erlatibo bat baliatzen da.

- ✔ Mediku kolegioak ohar bat kaleratu du, kezka handia azalduz modan dauden argaltze-erregimenak direla eta. Medikuek diote ez direla batere osasungarriak jaki bakarrean oinarritutako erregimenak. **Benetan osasungarria dena**, elikagai askotatik gutxi jatea da.

“ Hitz guztiek izaten dute beren zeregina esaldi barruan, baina, jakina denez, aditza da nolabait ardatza. ”

Euskarazko albistegietarako esku-liburua I

3. Albiste-testu bikainetan

arretaguneak bost dira

Irratian eta telebistan, idatzizko kazetaritzan bezala, albiste-testuak istorioaren gaineko bost galderari erantzun behar die: nor (3.1.), zer (3.2.), noiz (3.3.), non (3.4.) eta zergatik (3.5.). Bost galdera horiei albistearen bost koordinatuak esaten zaie –ingelesez, «the 5 Ws»–. Testuak bostei erantzunez gero, istorioa osorik kontatuta dagoela jotzen da.

3.1. Albiste-testu bikainetan

arretaguneetako bat protagonistak (NOR) dira

Albiste-testuetan ondo identifikatu behar dira gertakizunetako protagonistak. Askoren kasuan, nahikoa izaten da izena esatea, baina identifikatzeko modurik formalena kargua, lanbidea edo datu biografikoak gaineratzea izaten da.

Deskribapena

3.1.a. Izenetan sailak bereiz daitezke deklinatzeko moduaren arabera.

Artikuluaren erabilerari dagokionez, ezberdinketa hau egiten da.

- **Izen bereziak:** «Paris», «Antonio», «Gorri»... Artikulu barik deklinatzen ditugu.
- **Izen arruntak:** «hiri», «gizon», «behi»... Artikulua onartzen dute.
- **Erakunde-izenak:** «Nazio Batuen Erakundea», «Herri Batasuna», «Industria Ministerioa»... Izen bereziak dira, baina izen arruntan antzera deklinatzen dira, alegia, artikulua daukatela aintzat hartuta.

Herri Batasuna

Herri Batasunak

Herri Batasunari

Herri Batasuneko

Herri Batasunean

Herri Batasunetik

Pertsonak eta animaliak aipatzeko erabiltzen diren izenek sail berezi bat osatzen dute.

- **Izen bizidunak:** «irakasle», «gozogile»... Leku-denborazko kasuetan, *-gan* atzizkiaren bidez edo *-ren baitan* postposizioaren bidez deklinatzen dira.
- **Izen bizigabeak:** gainerakoak. Normal deklinatzen dira.

3.1.b. Izen bi, erreferentzia berekoak, elkarren ondoan jarrita, aposizioan daude.

Aposizioak ordenatzeko modu bi daude.

- **Deitura aurretik:** «Zenarruzabeitia andrea». Hau da ohikoena.
- **Deitura atzetik:** «andre Madalen», «osaba Antton». Erabilgarria karguekin.

Aposizioak deklinatzeko modu bi daude.

- **Marka errepikatuta, bietan:**

«PSOEren idazkari nagusiak, Alfredo Perez Rubalcabak, huts egin du».

«Josu Ibarrari, basoan galduta dabilen mendizaleari, erreskate-taldea bidali diote».

- **Marka bakarra, atzean:**

«Unibertsitateko Errektoreorde Edurne Mendiluzekk txosten bat aurkeztu du».

«Edurne Mendiluze Unibertsitateko Errektoreordeari txosten bat aurkeztu diote».

3.1.c. Aposizio-kasu batean marka bakarra ipiniz gero, lehen izenean ez da arrastorik utzi behar: «*Unibertsi-tateko Errektoreordea, Edurne Mendiluzek». Salbuespen bi daude:

- **Izengoitiak:** «Antso Azkarra errege ausartari».
- **Errege-erreginak eta aita santuak** bereizteko ordinalak: «Benedikto XVI.a aita santuarekin».

Aholkuak

3.1.1. Albisteko protagonista identifikatzen laguntzeko datuak izenaren ostean ematen dira, aposizioan. Joera handia dago datuok erlatiboan bidez emateko, baina baztergarria da.

- ✘ Gurekin dugu oposizioa aurkeztu ziren 2.300 pertsonetatik lehena geratu dena: **48 urte di-tuen** eta **hiru seme-alabaren ama den** Arantza Escudero gasteiztarra.
- ✔ Gurekin dugu oposizioa aurkeztu ziren 2.300 pertsonetatik lehena geratu dena: Arantza Escudero, **gasteiztarra, 48 urtekoa, hiru seme-alabaren ama.**

Izena galdegaiaren lekuan badago, izen horren aposizioan eman nahi diren argibideak aditzaren ostera pasa daitezke.

- ✔ Hau Asier Marcilla Plaza da, **urte berri honetan Euskal Herrian jaio den lehen haurra.**
- ✔ Urumea ibaitik gorpu bat atera dute, **inolako nortasun agiririk ez zuena.**

Argibideak aditzaren ostera pasatuta, baliteke aposizioa baino joskera erosoagoa aurkitzea.

- ✘ **Washingtonen bisita ofiziala egiten ari den** Ariel Sharon ez da bihar arte bilduko Bushekin.
- ✔ Ariel Sharon ez da bihar arte bilduko Bushekin **Washingtonen egiten ari den bisita ofizialean.**
- ✘ **Kazakhstanetik etorri berri den** Aita Santuak opor egun batzuk hartzeko asmoa azaldu du, parkinsonak oso makaldurik baitauka azkenaldian.
- ✔ Aita Santuak opor egun batzuk hartzeko asmoa azaldu du **Kazakhstanetik etorri berritan,** parkinsonak oso makaldurik baitauka azkenaldian.

3.1.2. Identifikatzeko modurik ohikoena protagonistaren kargua aipatzea da.

- ✔ Maria Esther Solabarrieta **Bizkaiko Ingurumen diputatua** kanpainaren aurkezpenean izan da.
- ✔ Andoni Ortuzar **EiTren zuzendari nagusiak** 2007-2010 epealdirako programa-kontratua sinatu du Miren Azkarate **Kultura Sailaren buruarekin.**

Kargua edo lanbidea adierazteko izenetan, euskaraz ez dugu sexu-bereizketarik egiten.

- ✘ Pilar Ardanza Durangoko **alkatesa**
- ✔ Pilar Ardanza Durangoko **alkatea**

- ✘ Klara Badiola euskal **aktorea**
- ✔ Klara Badiola euskal **aktorea**

Karguak eta erakundeak kokatzeko, ez dugu jentiliziorik erabiltzen. NONGO kasuaz baliatzen gara.

- ✘ Vladimir Putin **errusiar** presidenteak gogor kritikatu du Estatu Batuen asmoa.
- ✔ Vladimir Putin **Errusiako** presidenteak gogor kritikatu du Estatu Batuen asmoa.

- ✘ Hamasek **israeldar** Armadako kapitain bat zauritu du gaur goizeko erasoan.
- ✔ Hamasek **Israelgo** Armadako kapitain bat zauritu du gaur goizeko erasoan.

Erakunde-izen luzeak sigla bidez laburtzeko ohitura dago idatzizko hedabideetan. Ahoz ere erabil daitezke siglak, baldin eta ikus-entzuleentzat ezagunak badira, eta euskarazkoak badira. Osterantzean, ez da zaila laburtzeko beste modu batzuk aurkitzea.

- ✘ Kofi Annanek uko egin dio **NBEren** eta **ALren** Siriarako ordezkari izateari, eta orain beste izen bat adostu beharko dute.
- ✔ Kofi Annanek uko egin dio **Nazio Batuen** eta **Arabiar Ligaren** Siriarako ordezkari izateari, eta orain beste izen bat adostu beharko dute.

3.1.3. Artistak euren obren bidez identifika daitezke.

- ✔ Bernardo Atxaga, **Obabakoak eleberriaren sortzailea**, Edinburgoko liburu-azokan da, sei euskal poetaren gaineko antologiaren aurkezpenean.

Film, margolan, liburu, musika-konposizio eta bestelako artelanen izenak euskaraz eman behar dira euskarazko albistegietan. Jatorrizko izenarekin ere aipa daitezke, batez ere inguruko hizkuntzek ere jatorrizko izena erabiltzen dutenean: *La Boheme*.

- ✔ Alderdi Komunistak Milango alkatetzarako hautagai izateko eskatu dio Dario Fori, **“Anarkista baten ezusteko heriotza” antzerkiaren egileari**.

Agenda atalean, non zein ikuskizun edo ekitaldi egongo den azaldu behar denean, antolatzaileak zabaldutako egitarauan datorren izena erabiliko da.

3.1.4. Bizidunen deklinabidea izen bizidunekin erabiltzen da; bizigabeekin, ez. Albiste-testuetan asko zabaldu da bizigabeak bizidunen antzera deklinatzea, batzuetan hitz garrantzitsuak hanpatu edo nabarmentzeko, eta beste batzuetan dena delako izen bizigabearen atzean pertsonak daudela adierazteko. Baztertu egingo da jokabide hori.

- ✘ Herrizaingo sailburuak baikor ikusten du **Alderdien Legearengandik** aldentuta PSOEk hartu duen jarrera.
- ✔ Herrizaingo sailburuak baikor ikusten du **Alderdien Legetik** aldentuta PSOEk hartu duen jarrera.

- ✘ Getafe **Atheticengandik** hiru puntura jarri da azken partidari.
- ✔ Getafe **Atheticetik** hiru puntura jarri da azken partidari.

- ✘ Garraioetako grebak eragin oso handia izan du **eskolengan**.
- ✔ Garraioetako grebak eragin oso handia izan du **eskoletan**.

Baztertzea da, era berean, Hegoaldean *-ren baitan* markari ematen zaion adiera okerra.

- ✘ Alderdi Popularraren **baitan** zatiketa eragin du Maria San Gilen erabakiak.
- ✔ Alderdi Popularraren **barruan** zatiketa eragin du Maria San Gilen erabakiak.

Medikuntzaren, soziologiaren edo beste zientzia baten ikuspegia hartzen denean, bizidunekin ere ez da bizidunen moldea erabiltzen.

- ✔ Mongolian ere izan dira hegazti-gripearen agerraldiak. Gehienak **gizakietara** igarotzen den motakoak dira.

“Avoid starting a sentence with a participial phrase, and virtually never start a story with one.
(6)”

DIS Broadcast Writing Style Guide

(6) Esaldi bat hasteko, saihets itzazu adizlagunak, eta, kontakizun bati ekiteko, ez erabili adizlagunik ia inoiz.

3.2. Albiste-testu bikainetan

arretaguneetako bat gertaera (ZER) da

Kazetariak, gertaerak zehazteko, deskribapenarekin loturiko hitz-motak erabiltzen ditu: izenak eta aditzak, batez ere. Balorazioarekin eta iritziarekin loturikoak, berriz, saihestu egiten ditu.

Deskribapena

3.2.a. Hitzaren berezko adierari denotazio esaten zaio. Berezko adierari itsasten zaizkion esangurak **konnotazio** izendatzen dira.

Konnotazio mingarria, gaitzesgarria edo iraingarria duten hitzak nahita saihesten direnean, **hizkera politikoki zuzena** erabiltzen dela esaten da.

Aholkuak

3.2.1. Hitz zehatzek zehazki helarazten diete informazioa ikus-entzuleei.

- ✘ Gurutze Gorria **hurbildu** da mendizalearen gorpua leizetik **erreskatatzera**.
- ✔ Gurutze Gorria **joan** da mendizalearen gorpua leizetik **ateratzera**.

Albiste-testuetan, berriz, oso zabal dabil hitzei, aditzei batik bat, adierazpen-indarra kentzeko joera. Esaldi-sorta honetan, adibidez, alferreko itzulunguruak egin dira *lortu* aditzarekin.

- ✘ Alexander Pitxuxkin 33 urteko errusiarrak serie-hiltzaile handien zerrendan **sartzea lortu** du. Epaimahaiak 48 hilketaren errudun jo du.
- ✔ Alexander Pitxuxkin 33 urteko errusiarra serie-hiltzaile handien zerrendan **sartu** da. Epaimahaiak 48 hilketaren errudun jo du.
- ✘ Gaurko enkantean, Espainiako Altxor Publikoak 3.500 milioi euro **kokatzea lortu** du urtebeterako letretan, % 3,2ko interes-tasan.
- ✔ Gaurko enkantean, Espainiako Altxor Publikoak 3.500 milioi euro **kokatu** ditu urtebeterako letretan, % 3,2ko interes-tasan.
- ✘ Gizona autotik jaitsi da, lau bider sartu dio labana emazte ohiari, eta **ihes egitea lortu** du, kale artean korrika.
- ✔ Gizona autotik jaitsi da, lau bider sartu dio labana emazte ohiari, eta **ihes egin** du, kale artean korrika.

Beste inoiz, esangura hutsaleko klizeak erabiltzen dira. *Betetako*, adibidez, edukia aipatu nahi den guztietarako zabaldu da albiste-testuetan, baina beteta egotea ez da hori. Gauza gehiago ez kabitzea esan nahi du.

- ✘ Zientzialariz **betetako** itsasontzi bat hondoratu da.
- ✔ Ozeanografia-itsasontzi bat hondoratu da.

- ✘ Bonba bat ipini dute ikaslez **betetako** autobus batean.
- ✔ Bonba bat ipini dute eskola-autobus batean.

- ✘ Autoak habez **beteriko** kamioi bat jo du aurrez aurre.
- ✔ Autoak habez kargatutako kamioi bat jo du.
- ✔ Autoak habeak zeramatzan kamioi bat jo du.

- ✘ Atxiloketen ostean, lehergaiz eta armaz **betetako** garaje bat aurkitu dute.
- ✔ Lehergaia eta armak aurkitu dituzte garaje batean.

3.2.2. Albiste-testuetan erraz uler daitezkeen berbak eta esamoldeak erabiltzen dira, aukera dagoenean.

- ✘ Euskal Herriko Unibertsitateak Miramar jauregia aukeratu du, bere truke-programan parte hartzera datozen 120 ikasleei **batzarri egiteko**.
- ✔ Euskal Herriko Unibertsitateak Miramar jauregia aukeratu du, bere truke-programan parte hartzera datozen 120 ikasleei **harrera egiteko**.

Adierazi nahi dena ezkututzen edo lausotzen duten hitzak eta esamoldeak baztertu egin behar dira. Siglak, adibidez, erabil daitezke, baina askotan garbiagoa da izen luzeak beste modu batean laburtzea.

- ✘ Uztailean % 0,1 igo da **KPI** Nafarroan.
- ✔ Uztailean % 0,1 igo da **prezioen indizea** Nafarroan.

3.2.3. Albiste-testuetan hitz neutroak erabiltzen dira. Hasteko, berba mingarri, gaitzesgarri edo iraingarriak baztertu egin behar dira.

- ✘ **Atso bat** hil da auto-istripuan.
- ✔ **Adineko emakume bat** hil da auto-istripuan.

“
«Nola esaten da euskaraz...
(dena delakoa)?» Askotan
erantzunik gabeko galdera izaten da hori, erdal hitz konkretu batean oinarritutako erdal egitura osoa baitago horren atzetik.”

Euskarazko albistegietarako esku-liburua I

Albiste-testuetan, desegoki dira lagunarteko kutsua zein jasoa edo goi-mailakoa duten hitz eta esamoldeak.

- ✘ Bonbaiko herritarren erdiak **zorriak baino pobreagoak** dira.
- ✔ Bonbaiko herritarren erdiak **oso behartsuak** dira.

- ✘ Indarkeriak ez du **akaburik** Ekialde Hurbilean.
- ✔ Indarkeriak ez du **azkenik** Ekialde Hurbilean.

- ✘ Elurrak kentzeko makinak **pronto** daude.
- ✔ Elurra kentzeko makinak **prest** daude.

- ✘ Loiolako basilikan egin den mezan, Munilla gotzainak **landerrak** gogoan izateko eskatu die ekainean paga bikoitza jaso dutenei.
- ✔ Loiolako basilikan egin den mezan, Munilla gotzainak **behartsuak** gogoan izateko eskatu die ekainean paga bikoitza jaso dutenei.

Konnotazio teknikoa duten hitzak ez dira egoki.

- ✘ Igor Jauregi Realeko jokalaria zelaitik kanpo geratuko da aldi batez, **atzeko lotailu gurutzatuaren erasan sinobiala** sendatu arte.
- ✔ Igor Jauregi Realeko jokalaria zelaitik kanpo geratuko da aldi batez, **belauneko bihurtura** sendatu arte.

Konnotazio arkaikoa duten hitzak baztertu egin behar dira.

- ✘ Bi mutil **ero** dituzte New Yorken lau pistolarik.
- ✔ Bi mutil **hil** dituzte New Yorken lau pistolarik.

- ✘ Irudietan **dakusagu** zer gertatu den.
- ✔ Irudietan **ikusten dugu** zer gertatu den.

Albiste-testuetan hitzak aukeratzen direnean, ez da zabarkeriaz jokatu behar, ezta garbizalekeriaz ere.

- ✘ Estatu Batuetako ekonomia **recesioan** sartu da, ekonomisten arabera.
- ✔ Estatu Batuetako ekonomia **atzeraldian** sartu da, ekonomisten arabera.

- ✘ Ingurumen Ministerioak jakinarazi du **harrolio**a ez dela Eivissako hondartzetara heldu.
- ✔ Ingurumen Ministerioak jakinarazi du **petrolio**a ez dela Eivissako hondartzetara heldu.

3.3. Albiste-testu bikainetan

arretaguneetako bat denbora (NOIZ) da

Irratian eta telebistan hurbileko jarraipena egiten zaio informazioari. Albistea, askotan, istorioa gertatzen den denbora amaitu baino lehen zabaltzen da; alegia, egun, tarte edo ordu berean zabaltzen da. Horregatik, aditzak orainaldian kokatzen ditu albisteak.

Deskribapena

3.3.a. Euskal aditzean **orainaldia** («da», «du») eta **iraganaldia** («zen», «zuen») bereizten dira.

- «Etorri da» eta «eraman du» erako sailari orainaldi **burutua** esaten zaio. Burutuaren bidez aditzaren ekintza dagoeneko amaitu dela adierazten da: «Neskatoak sagar bat eskatu du».
- «Dator» eta «darama» erako sailari orainaldi **puntukaria** esaten zaio. Puntukariaren bidez uneko egoera baten berri ematen da: «Ilkasleak besapean dakar liburua».
- «Etortzen da» eta «eramaten du» erako sailari orainaldi **burutugabea** esaten zaio. Burutugabearen bidez aditzaren ekintza aldian-aldian gauzatzen dela adierazten da: «Larunbatetan zinemara joaten naiz lagunekin».
- «Etorriko da» eta «eramango du» erako sailari orainaldiko **geroa** esaten zaio. Orainaldiko geroaren bidez aditzaren ekintza hemendik aurrera gauzatzekoa dela adierazten da: «Trena hiru minutu barru irtengo da».

3.3.b. Aditzaren bidez beste balio batzuk ere adierazten dira.

- **Deskribapena** orainaldi puntukariaren edo orainaldi burutugabearen bidez adierazten da: «Txakurrak zaunka egiten dute», «Mari txikitatik ezagutzen dut», «Erroma Italian dago», «Artxandatik Bilbo ikusten da»...
- **Iradokizunak** (gonbitak, eskeak, proposamenak...) orainaldiko geroaren bidez egiten dira: «Gure etxean geldituko zara», «Itxiko duzu leihoa?»...
- **Etorkizuna** orainaldi puntukariaren edo orainaldi burutugabearen bidez ere adieraz daiteke: «Bi-har bazkaria daukat unibertsitateko ikaskideekin», «Larunbatean ez dute ematen Osasunaren partida telebistaz»...
- **Kontaketa** bi erataria egiten da: edo orainaldi burutuan, edo orainaldi burutugabea. Forma trinkoa duten aditzak orainaldi puntukarian jartzen dira, eta adierazpenezko aditzak orainaldi burutugabea: «Sartzen da gizon bat taberna batean, eta dio: 'kafe hutsa'», «Sartu da gizon bat taberna batean, eta galdetzen du: 'zer ordu da?'».

3.3.1. Albiste-testuetan, ahalik eta zehatzen adierazten da denbora aditzaren bidez. Gauza bera esateko aukeran aditz bat baino gehiago badago, berezko aditz-saila hobetsiko da: etorkizunerako, geroaldia; pasatuta dagoena azaltzeko, burutua...

- ✘ Athleticek bihar **jokatzen du** Ligako lehen partida.
- ✔ Athleticek bihar **jokatuko du** Ligako lehen partida.

3.3.2. Eguneko istorioak kontatzeko, orainaldi burutua erabiltzen da.

- ✔ Ibarretxe lehendakariak abelazkuntza laborategi bat **inauguratu du** Derion.

Gauza bi aldi berean gertatzen badira, bigarrena adierazteko orainaldi burutua erabil daiteke. Baita iraganaldi puntukaria ere, aditzak aukera ematen badu.

- ✔ Ibarretxe lehendakariak abelazkuntza laborategi bat inauguratu du Derion. Ibarretxeren ondoan Derioko alkatea **egon da**.
- ✔ Ibarretxe lehendakariak abelazkuntza laborategi bat inauguratu du Derion. Ibarretxeren ondoan Derioko alkatea **zegoen**.

3.3.3. Albistegiaren emanaldiarekin bat egiten duten gertakariak kontatzeko, orainaldi *ari*-duna erabiltzen da. Izan ere, *ari* aditzaren bidez ekintza hasita eta oraindino amaitu gabe dagoela adierazten da.

- ✔ Miguel Madariaga Euskaltel-Euskadiren arduraduna prentsaurrekoa **ematen ari da** Zamudioko teknologi parkean. Guk bat egingo dugu zuzenean, hemendik aurrerako asmoez galdetzeko.
- ✔ Iruñeko gai penaletarako 3. gelan supermerkatu baten hiru jabeak **epaitzen ari dira**, ijito etniako pertsonak euren lokaletik indarrez eta irainka kanporatzen zituztelakoan.
- ✔ Hiesari Buruzko Nazioarteko Kongresuan, adituak Hegoafrikako egoera **aztertzen ari dira**.

3.3.4. Albistegiarekin bat egiten duten gertakariak kontatzeko, *ari* ez da aukera bakarra. Estiloa zaintze hutsagatik bada ere, albiste-testuak ezin dira *ari*-z bete. Hizketa errealean ere, hainbat formula erabiltzen dira itxi gabeko jazoeren berri emateko.

- ✔ Irudietan **ikusten ari zareten** bilkura goizeko bederatzietan hasi da, eta luze joko du oraindino.
- ✔ Irudietan **ikusten duzuen** bilkura goizeko bederatzietan hasi da, eta luze joko du oraindino.

- ✔ Frantzia, Errepublikako presidentea **aukeratzen ari dira** gaur.
- ✔ Frantzia, Errepublikako presidentea **aukeratu behar dute** gaur.

- ✔ Guggenheim museoa Frank Gehryren lanik aipagarrienak **erakusten ari da** egunotan, marrazki, plano, maketa, dokumentu eta argazki bilduma baten bidez.
- ✔ Guggenheim museoak Frank Gehryren lanik aipagarrienak **ikusgai ditu** egunotan, marrazki, plano, maketa, dokumentu eta argazki bilduma baten bidez.

- ✔ Palestinar lurraldeetan tentsioa **handitzen ari da**, baina Sharonek ez dauka Arafaten jazarpena amaitzeko asmorik.
- ✔ Palestinar lurraldeetan tentsioa **handituz doa**, baina Sharonek ez dauka Arafaten jazarpena amaitzeko asmorik.

3.3.5. Behin-behineko egoerak deskribatzeko, ez da egokia *ari* erabiltzea. Behin-behinekoa izan arren, aldatuko dela jakin arren, gertatu dena gertatuta dago.

- ✘ Bilboko burtsan, goizeko igoerarik aipagarriena, Iberdrola. Puntu erdi **irabazten ari da**.
- ✔ Bilboko burtsan, goizeko igoerarik aipagarriena, Iberdrola. Puntu erdi **irabazi du** orain arte.

- ✘ Espainiako Polizia etengabe **ari da** Batasuneko hainbat kide **atxilotzen**, arratsaldeko lauretan hasita.
- ✔ Espainiako Poliziak Batasuneko hainbat kide **atxilotu ditu**, arratsaldeko lauretan hasi eta oraindik itxi ez duen operazioan.

3.3.6. Iraganeko gertaerak kontatzeko, iraganaldia erabiltzen da.

- ✔ Al Jazira telebista kateak zabalduko bideoa, Osama bin Ladenen jarraitzaile batek **grabatu zuen**. Grabazioa Afganistango ezkutalekuren batean **egin zuten**, New Yorkeko atentatua izan eta gutxira.

Aurreko gaueko gertakariak orainaldian kontatu daitezke *bertan* erabiliz.

- ✔ Su handi batek lantegi osoa **erre du** bertan.

Salbuespen hori eginda, iraganeko gertaerak, iraganaldian. Biografia bat, esaterako, honela kontatuko litzateke.

- ✓ Camilo Jose Cela Coruñaiko Iria Flavia herrian **jaio zen**, orain dela 85 urte. Medikuntza, Filosofia eta Zuzenbide ikasketak **hasi zituen**, baina Literatura **izan zen** bere bizitzako ardatza. Lehen eleberria, *Pascual Duarteren sendia*, 1942an **argitaratu zuen**, eta harrezkero genero guztiak **landu zituen**. 1984an, Espainiako Literatura Sari Nazionala **irabazi zuen**. 1989an, Literaturako Nobel saria **eman zioten**. Gero, 90eko hamarkadan, Planeta eta Cervantes sariak.

Txosten-bideoetan, eguneko albisteen informazio osagarria emateko, berdin.

- ✓ 1986ko apirilaren 26an, goizean goiz, bi eztanda **izan ziren** Txernobyleko zentral nuklearrean, eta guztiz **suntsitu zuten** laugarren erreaktorea. Hamar egunean, sutan **egon zen** erreaktorea, eta Hiroshimako bonbak baino berrehun aldiz gai erradioaktibo gehiago **jaurti zuen** eguratsera. Inguruko biztanleei gaitz larriak **eragin zizkien**; askori, minbizia. Duela urtebete, Ukrainako Gobernuak behin betiko **itxi zuen** Txernobyleko zentrala, nazioarteko diru-laguntzaren truke.

Albistegietatik kanpo, beste estilo batzuk erabil daitezke. Dokumentaletan, adibidez, antzeko kontakizun bat orainaldian egin liteke.

- ✓ Txernobyl, 1986ko apirilaren 26a. Goizean goiz, bi eztanda izan dira zentral nuklearrean. Lau garren erreaktorea guztiz suntsitu da. Hamar egunean sutan egon da, eta Hiroshimako bonbak baino berrehun aldiz gai erradioaktibo gehiago jaurti ditu eguratsera. Lehengo Sobietar Batasuneko agintariak ez zuten jakin larrialdiari behar bezala aurre egiten, edo ez zuten nahi izan. Eta horren ondorioz, hamasei urteren buruan, Ukraina da munduan tiroideko minbizi kasu gehien duen herrialdea.

3.3.7. Etorkizuneko gertakarien berri emateko, orainaldiko geroa baliatzen da, batik bat gertakariok ziurtzat jotzen badira.

- ✓ Realak eta Osasunak igandean **jokatuko dute** aurtengo bigarren derbya, Anoetan, arratsaldeko bostetan.
- ✓ Bihar **hasiko da** irteera operazioa ofizialki, baina gaur arratsaldean ilara luzeak eratu dira Euskal Herriko errepide nagusietan.

Asmoen berri emateko, kazetariak *-tzekoa(k) izan* perifrasiak erabil dezake, albistegian aurreratutakoa betetzea protagonisten esku dagoela azpimarratu nahi badu.

- ✓ Javier Solana eta Josep Pique, Europar Batasunaren ordezkariak, Ariel Sharonekin **batzartze-koak dira** ostegunean, (baina baliteke azkenean ez joatea Tel Avivera).

Beste asmo batzuk lotuago egoten dira, prestatuago. Asmoa bete dadin nolabaiteko prestakizunak eginak direla adierazteko, *behar* aditz modala dago.

- ✔ Autobideak banandu dituen alde biak lotzeko, zubi bat ***egin behar du*** Foru Aldundiak. Inguruko baserritarrak kexu dira indusmakinen zaratagatik.

Baten batek etorkizunerako erabaki duenaren berri emateko, *-tzera joan* eta *-tzekotan izan* perifrasiak dauzkagu.

- ✔ Autobideak banandu dituen alderdi biak lotzeko, zubi bat ***egitekotan da*** Foru Aldundia. Aurrekontua gaur onartu dute Batzar Nagusietan.

Hemendik gutxira gertatuko denaren berri emateko, *-tzera joan* / *-tzear egon (izan)* / *-tzeko zorian egon (izan)* perifrasiak daude.

- ✔ Gatibuak aske ***irteteko zorian dira***, bahitzaileek lortutzat eman baitute euren helburua.
- ✔ Loiuko aireportura ***heltzear daude*** Munduko Txapelketan parte hartu duten euskal atletak.
- ✔ Txupinazoa bota behar duen zinegotzia irten da udaletxeko balkoira. Sanferminak ***hastera doaz***.

“**Testu berean zenbaki asko denean (estatistikak, ehunekoak, aurrekontuak...), ikusentzuleak eskertu egiten du entzunaz batera zenbakiok idatziz ere agertzea.**”
Euskarazko albistegietarako esku-liburua I

3.4. Albiste-testu bikainetan

arretaguneetako bat lekua (NON) da

Albiste gehienek ez dute zentzurik gertalekua zehazten ez bada. Ikus-entzuleek, gainera, gertalekua zenbat eta hurbilagokoa izan, orduan eta gehiago zehaztea eskatzen dute.

Deskribapena

3.4.a. Toponimoak (toki-izenak), berez, izen bereziak dira. Horrenbestez, honela deklinatzen dira, amaieraren arabera.

	-N / -M	-L	-R
NONDIK	Irun <u>dik</u> = Irun <u>etik</u>	Seul <u>dik</u> = Seul <u>etik</u>	Aljert <u>tik</u> = Aljerr <u>etik</u>
NORA	Irun <u>a</u> = Irun <u>era</u>	Seul <u>a</u> = Seul <u>era</u>	Aljerr <u>a</u> = Aljerr <u>era</u>
NONGO	Irungo = Irun <u>eko</u>	Seulgo = Seul <u>eko</u>	Aljer <u>ko</u> = Aljerr <u>eko</u>

	BOKALA	-S / -Z	-TZ	BESTE
NONDIK	Loiut <u>tik</u>	Parist <u>tik</u> = Paris <u>etik</u>	Agoiz <u>tik</u> = Agoitz <u>etik</u>	Kiev <u>etik</u>
NORA	Loiur <u>a</u>	Paris <u>a</u> = Paris <u>era</u>	Agoitz <u>a</u> = Agoitz <u>era</u>	Kiev <u>era</u>
NONGO	Loiu <u>ko</u>	Parisk <u>o</u> = Paris <u>eko</u>	Agoiz <u>ko</u> = Agoitz <u>eko</u>	Kiev <u>eko</u>

3.4.b. Izen bereziak izan arren, toponimo batzuk **artikuludunak** dira, eta izen arrunten antzera deklinatzen dira. Batzuek artikulua singularra dute (*Hondarribia, Azpeitia, Autzagana, Kanala*, e. a.), eta beste batzuek artikulua plurala (*Ameriketako Estatu Batuak*, e. a.). Amaieran *-a* duten toponimo guztiak ez dira artikuludunak. Beraz, zerrendak kontsultatu behar dira.

	BOKALA + SINGUL.	KONTS. + SINGUL.	PLURALA
NOR	Azpeiti <u>a</u>	Autzagana <u>a</u>	Estatu Batu <u>ak</u>
NORK	Azpeiti <u>ak</u>	Autzagan <u>ak</u>	Estatu Batu <u>ek</u>
NORI	Azpeiti <u>ari</u>	Autzagan <u>ari</u>	Estatu Batu <u>ei</u>
NOREN	Azpeiti <u>aren</u>	Autzagan <u>aren</u>	Estatu Batu <u>en</u>
NON	Azpeiti <u>an</u>	Autzagan <u>ean</u>	Estatu Batu <u>etan</u>
NONDIK	Azpeiti <u>tik</u>	Autzagan <u>etik</u>	Estatu Batu <u>etatik</u>
NORA	Azpeiti <u>ra</u>	Autzagan <u>era</u>	Estatu Batu <u>etara</u>
NONGO	Azpeiti <u>ko</u>	Autzagan <u>eko</u>	Estatu Batu <u>etako</u>

ARTIKULUDUN TOKI IZEN BATZUK

Abandoibarra	Bidasoa	Kanala
Abaurregaina	Bizkaia	Kanariak
Abaurrepea	Bortzerriak	Lizagorria
Ameriketako Estatu Batuak	Bortziriak	Mallabia
Ameskoabarrena	Busturia	Mañaria
Ameskoagoiena	Dantxarinea	Mañarikua
Andagoia	Elizagorria	Mandubia
Arabiar Emirerri Batuak	Ergoiena	Mendigorria
Arratzua-Ubarrundia	Ermua	Nafarroa Beherea
Asparrena	Erriberabeitia	Natxitua
Astrabudua	Erriberagoitia	Olaberria
Asua	Erromantzatua	Olatzagutia
Autzagana	Filipinak	Onizepea
Azkoitia	Forua	Ospitalepea
Azpeitia	Harana	Otsagabia
Aztiria	Herbehereak	Sarrikotapea
Bargondia	Hondarribia	Ugarana
Basaburua	Iratzagorria	Urizarra
Bernagoitia	Iruñea	Ziordia
Berriatua	Itzagaondoa	Zizur Nagusia

Aholkuak

3.4.1. Euskal Herriko toponimo bakoitza forma bakarrean erabiliko da. Toponimoa euskarazkoa bada, euskal forman. Toponimoa erromantzezkoa bada, dagokion forman.

- ✔ Ehunka zale irten dira kalera [Biarritzen](#), hiriko errugbi-taldearen garaipena ospatzera.
- ✔ Hamasei urteko mutil bat hil da [Cabanillasko](#) entzierroan, zezen batek harrapatuta.

Izen ofizial bi dituzten lekuen kasuan, euskarazko albisteetan euskarazko izena erabiliko da.

- ✔ Oso aurreratuta daude prestakizunak, 2016an [Donostia](#) Europako kultur hiriburua izan dadin Wroclawekin batera.

Euskal Herriko toki-izenen euskarazko formaz Euskaltzaindiak du azken hitza.

3.4.2. Mundu zabaleko toki-izenak Euskaltzaindiak erabakitako forman erabiltzen dira.

- ✘ Urtero ehun bat ume etortzen dira **Ukraniatik** Euskal Herrira uda pasatzera.
- ✔ Urtero ehun bat ume etortzen dira **Ukrainatik** Euskal Herrira uda pasatzera.

Euskaltzaindiak erabaki ez dituenak erabiltzeko, adituen aholkuei jarraituko zaie.

3.4.3. Toki bat non dagoen azaldu behar bada, aposizioa da ahozko baliabiderik egokiena.

- ✘ **Bilboko Txurdinagan** bi trafikatzaile atxilotu dituzte.
- ✔ **Bilbon, Txurdinaga auzoan**, bi trafikatzaile atxilotu dituzte.
- ✔ **Bilboko Txurdinaga auzoan**, bi trafikatzaile atxilotu dituzte.

3.4.4. Toki bat zein den zehaztu behar bada, jentilizio batez baliatzea ez da aukera ona. Hobe da NONGO kasura jotzea.

- ✘ Aita Santuak mundu osoko gazteak hartuko ditu **Berlin alemaniar hiriburuan**.
- ✔ Aita Santuak mundu osoko gazteak hartuko ditu **Alemaniko hiriburuan, Berlinen**.

3.4.5. Kirol-talde bat aipatzeko haren hiriaren edo lurraldearen izena erabiltzen bada, euskarazko forma hartzen da.

Jokabide hori ondo errotuta dago. Alemaniako futbol-selektzioari, egiatan duen izena gorabehera, *Alemania* esaten zaio. Futbol Club Barcelonari bere hiriaren izena ematen zaio, *Bartzelona*, hirian beste futbol-talde bat egon arren.

Talde bat nongoa den adierazi nahi denean honela egiten da: «Kieveko Dinamo» edo «Dinamo Kievekoa»; «Tbilisiko Dinamo» edo «Dinamo Tbilisikoa». Modu biak dira zuzenak.

Taula eta grafikoetan, laburtzarren, toponimoa atzean jartzen da, beste barik: «Spartak Mosku», «Dinamo Kiev», «Girondins Bordele».

3.5. Albiste-testu bikainetan

arretaguneetako bat kausak eta arrazoiak (ZERGATIK) dira

Albisteetan ezbehar, lorpen, gaixotasun eta horrelako gertakariei buruz hitz egiten denean, kausen eta arrazoiaren berri ere ematen da. Hain zuzen, kontakizunak osatzen denean, hari baliagarrietako bat zergati-ondorio logikari jarraitzea da.

Deskribapena

3.5.a. Hiru kontzeptu bereizi behar dira.

- **Kausak:** eragile fisikoekin lotuak.
- **Arrazoiak:** pertsonen pentsamendu eta erabakiekin lotuak.
- **Azalpenak:** ez daude *zergatik* galderarekin lotuta, argibideekin baizik.

Aholkuak

3.5.1. Gertakari baten kausen berri emateko, *arrazoi* hitzaz baliatzea ez da aukera ona.

- ✘ Bularreko minbizia da **heriotzaren arrazoi** nagusia emakumeetan.
- ✔ Bularreko minbizia da **heriotza-eragile** nagusia emakumeetan.
- ✘ Topatu dute **matxuraren arrazoiak**: txori bat sartu da motorrean.
- ✔ Topatu dute **matxuraren kausa / eragilea**: txori bat sartu da motorrean.

Arrazoi hitzarekin osaturiko esapideak hala moduzkoak izateaz gainera, lekua kendu diete esateko modu egokiagoi.

- ✘ Oraindik ez dituzte argitu istripuaren **arrazoiak**.
- ✔ Oraindik ez dute argitu **zer dela eta** gertatu den istripua.
- ✔ Oraindik ez dute argitu **nolatan** gertatu den istripua.
- ✔ Oraindik ez dute argitu **zergatik** gertatu den istripua.

- ✘ Eguraldi txarra izan da espedizioak huts egitearen **arrazoia**.
- ✔ Eguraldi txarra **gatik** egin du huts espedizioak.
- ✔ Eguraldi txarra **dela kausa / medio** egin du huts espedizioak.
- ✔ Eguraldi txarra **tarteko (dela)** egin du huts espedizioak.
- ✔ Eguraldi txarraren **kausaz / ondorioz / eraginez** egin du huts espedizioak.
- ✔ Eguraldi txarrak **eraginda / behartuta** / ... egin du huts espedizioak.

3.5.2. Zergatik galderari erantzuteko, *-lako* erako esaldiak erabiltzen dira. Albiste-testuetan ez da normala holarik adierazi behar izatea.

- ✔ Etxean geldituko naiz, eta ez ateratzeko gogorik ez **dudalako**, dirurik ez **dudalako** baino.

3.5.3. Albisteetako estiloan ohi diren azalpen eta argibideak emateko, *eta* eta *bait-* erako esaldiak hobesten dira.

- ✘ Taldea ez dago bere onenean, lau jokalaria makalik **daudelako**.
- ✔ Taldea ez dago bere onenean, lau jokalaria makalik **daude eta**.
- ✘ Ilara luzeak sortu dira, istripu ikaragarria **gertatu delako**.
- ✔ Ilara luzeak sortu dira, istripu ikaragarria **gertatu baita**.

Testuinguru batzuetan, gainera, *-lako* erabiltzea okerra da. Dedukzioetan eta agindu edo aholku kutsuko ohartarazpenetan ez da *-lako* erabili behar.

- ✘ Litekeena da Athleticcek gaur garaitzea, aspaldian indartsu **dabilelako**.
- ✔ Litekeena da Athleticcek gaur garaitzea, aspaldian indartsu **dabil eta**.
- ✘ Dirudienez, hauteskundeak irabaziko ditu, iritzi-ikerketak alde **dituelako**.
- ✔ Dirudienez, hauteskundeak irabaziko ditu, iritzi-ikerketak alde **baititu**.
- ✘ Adi datozen orduetan, haize bolada indartsuak **iragarri dituztelako**.
- ✔ Adi datozen orduetan, haize bolada indartsuak **iragarri dituzte eta**.

Kazetariak, gainera, ez ditu bere ahoan ipini behar beste inork erabilitako arrazoi edo zergatiak.

- ✘ Animalien babeserako elkarteak salaketa ipini du, jabeak bihozgabe **tratatzen zuelako** txakurra.
- ✔ Animalien babeserako elkarteak salaketa ipini du, jabeak txakurra bihozgabe **tratatzen zuelakoan**.

- ✘ AHTren aurkako plataformak egitasmoa gaitzetsi du, %I baino **ez dituelako arinduko** errepideak.
- ✔ AHTren aurkako plataformak egitasmoa gaitzetsi du, errepideak %I baino **arinduko ez dituela iritzita**.

“**Broadcasters should aim to sound natural and conversational. They should write for the ear. (7)**”
The BBC news styleguide

4. Albiste-testu bikainetan

zehaztatzeko datuak ematen dira

Albistearen bost koordenatuak azalduta, istorioa osorik kontatutzat jo daiteke. Hala eta guzti, informazioa zehaztatu egin behar da, datuz hornitu, ikus-entzuleek euren iritzia egin ahal izan dezaten. Beharrezkoa da, horrenbestez, zenbaki eta kopuruak (4.1.), protagonistek emandako informazioak (4.2.), gertakariarekin lotutako probabilitateak eta posibilitateak (4.3.) eta gertakariaren beraren zirkunstantziak (4.4.) jakinaraztea.

4.1. Albiste-testu bikainetan

zenbakiak ematen dira

Albiste askoren funtsa zenbaki bat da. Aurrekontu, kontsumo-prezio, langabezi tasa eta abarren berri ematean, nahitaezkoak dira zenbakiak. Bestelako gaietan ere ohiko osagai dira.

Deskribapena

4.1.a. Testuinguru hauetan izenak artikulua barik deklinatzen dira, alegia, mugagabeen.

- **Zenbakiekin:** «Bankuan *lau lapur* sartu dira». Datua ezaguna edo zehaztua bada, artikulua hartzen du: «Lau horietako bat harrapatu egin dute, baina beste *hirurek* ihes egin dute».
- **Kantitateekin:** «*Hainbat lagun* elkartu dira». «*Pertsona askori* esan dio». «*Makina bat* liburutan begiratu dut». «*Behar adina emakumeri* emango diote tratamendua».
- **Galdetzaileekin** eta horien **eratorriekin:** «*Zein lekutan* aurki dezaket?». «*Zoaz edozein lekutara* eta hantxe ikusiko duzu».
- **Osagarri predikatiboekin:** lotura hutseko aditzen osagarria mugagabeen doa. «*Artzain joan* zen Ameriketara». «Elkarteko *buru izendatu* dute». «Talde hori *ospetsu bihurtu* da».
- **Esamolde berezietan:** «*sutan jarri*», «*trenez etorri*», «*ogitan / ogitara joan*», «*jertsea iruntzitara jantzi*»...

4.1.b. Mugagabearen erabileran ohar hauek hartu behar dira aintzat.

- **Hitzaren amaierako -a:** errespetatu egin behar da. «*Bi pertsonak* ikusi dute gertatutakoa».
- **Harridurak:** ez da mugagabea jartzen *zein(en)* edo *ze(r)* galdetzaileekin. «*Ze alferra* zaren!». «*Zein ederra* den leku hau!».
- **Atributuak:** *izan* aditzaren osagarria artikulua gabe erabil daiteke estilo dotorean: «*Itsasoa eder da* zure ondoan». Estilo arruntean artikulua jarri ohi da: «*Eraikin hau handia da*».
- **Mugagabe berezia:** ez du *-ta-* hartzen *non*, *nora*, *nondik* eta *nongo* kasuetan. Neurri-esapideetan erabiltzen da: «*handik bost egunera* itzuli zen», «*zazpi metroko* soka».

Aholkuak

4.1.1. Neurriak adierazteko esapideak mugagabe berezian deklinatzen dira. Mugagabe berezia denez, *non*, *nondik*, *nora* eta *nongo* kasuetan ez du *-ta-* hartzen.

- ✘ Bizilagunek bilkurak egingo dituzte igandero udaletxe aurrean, hurbileneko medikua herritik **hamazazpi kilometrotara** dagoela-eta protestatzeko.
- ✔ Bizilagunek bilkurak egingo dituzte igandero udaletxe aurrean, hurbileneko medikua herritik **hamazazpi kilometrora** dagoela-eta protestatzeko.

✘ Bihar, tenperatura ez da **.17 gradutatik** gora igoko.

✔ Bihar, tenperatura ez da **17 gradutik** gora igoko.

✘ Urzaiz **hiru minututan** bakarrik egon da gaur futbol zelaian.

✔ Urzaiz **hiru minutuan** bakarrik egon da gaur futbol zelaian.

Datua lehendik ezaguna bada edo nolabait zehaztuta badago, zenbakiak eta unitateak osatzen duten sintagma mugatua da.

✔ Atzerrian egin dituen **lau urteak** oso emankorrak izan dira.

✔ Everesteko abenturan galdu zituen **bederatzi kiloak** berriro hartu arte, oso makalik ibili da.

4.1.2. Neurri-esapidea izenlagun bihurtzeko, *-ko* jartzen dugu.

✔ **Hogeita lau gurpileko kamioi batek** istripua izan du A-8 autobidean, eta ilara luzeak eragin ditu goiz osoan.

✔ Gero eta gutxiago saltzen dira **hiru logelako etxebizitzak**, Consumer aldizkariak egindako ikerketaren arabera. **Bi komuneko etxebizitzak**, aldiz, gero eta gehiago.

Albistegietan, hainbat eta hainbat datu era horretara neurtuta edo zehaztuta ematen dira: «hogei urteko mutila», «hamazazpi graduko tenperatura», «bi milioi euroko aurrekontua»...

Zuhur ibili behar da, itxura horretako egiturak ez baitira beti neurriak izaten. Neurriak ez badira, mugagabe normala hartzen dute.

✔ **Hiru urteko ardoari** erreserbakoa esaten zaio. [*neurria*]

✔ Gure ezteietarako, **hiru urtetako ardoa** aukeratu dugu: 1995ekoa, 1998koa, eta 2001ekoa. Denak izan ziren uzta oneko urteak Arabako Errioxan. [*enumerazioa*]

Kiroletan, *alde* hitzari *-ko* bidez lotzen zaio marka: «gol bateko aldea», «hiru segundoko aldea»... Beste aukera bat badago: *-ren* bidez itsastea.

✔ **Ontzi baten aldea** atera dio Urdaibaik Castrori goizeko txandan.

Balioari buruz ari garenean, prezioa adierazteko *-ko* jartzen dugu, eta guztira zenbat gastatu(ko) dugun adierazteko *-ren* jartzen dugu.

- ✔ Nazio Batuen 986. ebazpenak baimena eman zion Iraki sei hilean behin **5.000 milioi dolarren petrolio** esportatzeko, baina ez da nahikoa herrialdearen premietarako.

Kirol askotan, probak eta kategoriak sailkatzeko, neurriak erabiltzen dira: pisua, luzera, zilindrada... Horretarako, azaldu bezalako izenlagunak egiten ditugu *-ko* atzizkiaren bidez.

- ✔ Emakumezkoen tximeleta erako **200 metroko probak** ezustekoa eman du.
- ✔ Emakumezkoen **200 metroko tximeleta erako probak** ezustekoa eman du.

Horrelako hitz-kateak sinpletzea erraza da.

- ✘ Usain Boltek munduko marka du **.100 metroetan.**
- ✔ Usain Boltek munduko marka du **100 metroko lasterketan.**
- ✔ Usain Boltek munduko marka du **100 metrokoan.**

- ✘ **480 kiloko txapela** Badaiotzek irabazi zuen.
- ✔ Badaiotzek irabazi zuen txapela **480ko mailan.**

- ✘ Erraz nagusitu da **250 zentimetro kubikoetan.**
- ✔ Erraz nagusitu da **250eko lasterketan.**
- ✔ Erraz nagusitu da **litro laurdenean.**

4.1.3. Okerra da eskala bati dagozkion neurriak pluralean ematea. Neurriak, esan bezala, mugagabe berezian eman behar dira.

- ✘ Barrualdean, tenperatura **40 gradueta** helduko da.
- ✔ Barrualdean, tenperatura **40 gradura** helduko da.

- ✘ Ibex 35ek **13.000 puntuak gainditu** ditu gaur.
- ✔ Ibex 35 **13.000 puntutik gora** jarri da gaur.

“The first rule of writing is to know what you want to say. (8)”
The BBC news styleguide

(8) Idazketaren lehen araua da zer esan nahi duzun jakitea.

Datua eskalaren barruan mugarri bat edo neurri nabarmengarri bat dela adierazi nahi bada, badaude beste modu batzuk.

- ✔ Barrualdean, tenperatura **40 graduko marrara** helduko da.
- ✔ Ibex 35ek **13.000 puntuko maila** gainditu du gaur
- ✘ Hiru ordu behar izan genuen **2.000 metroetara** igotzeko.
- ✔ Hiru ordu behar izan genuen **2.000 metroko kotara** igotzeko.

4.1.4. Neurri-esapidean gaia sartzen denean, honela ordenatzen da: *zenbakia - unitatea - gaia*.

- ✔ Barakaldoko tratamendu-instalaziora **bost mila tona lindano** eraman dituzte, urte bi baino lehen birziklatzeko asmoarekin.
- ✔ Tat Somarina kanbodiari abeslari ezagunari **katilu bete azido nitrikorekin** eraso dio bere maitalearen emazteak kale erdian.

Tamainari buruz ari izanez gero, lehengo egitura bera erabiliko da: *zenbakia - unitatea - gaia*. Gaia, kasu honetan, tamainari buruzko adjektibo bat da.

- ✔ Kale hau amaitzen dutenean, **bi kilometro eta erdi luze** izango da, eta **berrehun metro zabal**.

Egitura horri -ko erantsiz gero, honela adieraz daitezke albisteetan aipatzen diren gauzen tamaina-ezaugarriak.

- ✔ Eraikinean lanean ari ziren beharginak **hamar zentimetro lodiko oholen** azpian harrapatuta geratu dira.

4.1.5. Ehunekoak mugagabeen deklinatzen dira, zenbaki arruntak baitira.

- ✘ Euskaldunen **% 50a** ados daude referenduma egitearekin.
- ✔ Euskaldunen **% 50** ados daude referenduma egitearekin.

Aurretik aipatutako kopuru baten osagarri denean, kopuru zehaztua da, eta, beraz, mugatuan deklinatzen da.

- ✔ Inkestaturen % 40k uste dute erakundeek gehiago egin beharko luketela etorkinen alde. **Beste % 60ak** konforme daude oraingo politikarekin.

Erabilerarik zabalena aditza pluralean jartzen da. Plurala erabiliz gero, gainera, askotan errazagoa da testuaren koherentziari eustea.

- ✔ Ikusleen **% 20k** aukeratu **dute** ETB.
- ✔ **% 80** lanik gabe **daude**, eta horietatik erdiak emakumeak dira.

Proporzioak adierazteko modu bakarra ez dira ehunekoak.

- ✔ Euskal Autonomia Erkidegoan **hamar emakumetik lauk** antisorgailuak erabiltzen dituzte.

4.1.6. Zatikia mugagabea ematen dira, zenbaki arruntak baitira.

- ✔ **Internauten hiru laurdeni** asteburuan kirola egitea gustatzen zaie.

Erdi bat, heren bat eta laurden bat bereziak dira. *Bat* jarri ordez, artikulua jar daiteke. Artikulu plurala, zatikia multzo bati badagokio.

- ✔ **Eskola-umeen herenak** gaueko hamaikak baino beranduago oheratzen dira.
- ✔ **Euskaldunen erdiek** ez dute libururik irakurtzen urte osoan.

Zatikia gauza bakar bati badagokio, artikulua singularra.

- ✔ Gu lau bagara, zuzenena da bakoitzari **pastelaren laurdena** ematea.

4.1.7. Kopuru baten gorabeheren berri emateko, zenbat igo edo jaitsi den esaten da.

- ✘ Gasolio litroa **bi zentimoan** merkatu du Repsolek.
- ✔ Gasolio litroa **bi zentimo** merkatu du Repsolek.
- ✔ Euskal Autonomia Erkidegoan langabezi tasa **% 0,1** jaitsi da azken hilabetea.
- ✔ Bankuek **puntu erdi** jaitsi dituzte interes-tasak, baina lehentasunezko bezeroentzat bakarrik.
- ✔ Tenperaturak **bi gradu** egingo du behera asteburuan.

Pertsonak tarteko direnean, oso arraro ematen dute «Fagorrek mila langile murriztu du pertsonala» erako esaldiek. Horregatik, albiste-testuetan esaldia beste modu batean osatzera jotzen da.

- ✖ Bizkaiko Gurutze Gorria **berrehun pertsonatan** handitu da irratiko kanpainari esker.
- ✔ Bizkaiko Gurutze Gorriak **berrehun bazkide berri** batu ditu irratiko kanpainari esker.
- ✖ **14.500 pertsonatan** hazi da Nafarroako biztanleria lehengo urtean.
- ✔ **14.500 biztanle gehiago** zenbatu dira Nafarroan lehengo urtean.

4.1.8. Tarte batez zehazten diren datuak emateko, X eta Y (bit)artean esapidea erraza eta eroso da.

- ✔ Akusatuak **3 eta 16 urte bitarteko** kartzelaldia bete lezake.

Kasu batzuetan formula aproposagoak aurki daitezke.

- ✔ Erakusketan bildutako argazkiak **1990etik 2005era** ateratakoak dira.
- ✔ XXI. mendean **3-5 gradu** igoko da planetaren tenperatura.
- ✔ Indusketek erakutsi dute erromatarrak bizi izan zirela hemen, **Kristo aurreko I. mendetik Kristo ondorengo IV.era arteko** materiala aurkitu dute-eta.

4.1.9. Kopuru bat biribiltzen denean, *inguru* edo *gutxi gorabehera* esanez adierazten da datua ez dela erabat zehatza. Baita zenbakiari (-ren) *bat* gehituz ere.

- ✔ Aste honetan **800.000 euro inguru** irabaz ditzake kinielako 15 emaitzak asmatzen dituenak.
- ✔ **Berrogeita hamar bat adituk** hartuko dute parte hiesaren gaineko biltzarrean.

Kopuru zehatza esaten dena baino zerbait handiagoa dela adierazteko, *baino gehiago* eta *-tik gora* esapideak daude.

- ✔ **Laurogei mila pertsonatik gora** bildu dira Athleticen Ligako azken partida ikusteko.

Kopuru zehatza esaten dena baino zerbait txikiagoa dela adierazteko, *baino gutxiago*, *-tik behera* eta *ia* esapideak daude.

- ✔ **Ia 500.000 liburu** saldu dira Durangoko azokan.

Era honetako esapideetan, *inguru*, *gora* eta *behera* hitzak ezin dira deklinatu. Gehienez ere, izenlagun bihur daitezke *-ko* atzizkiaren bitartez.

✘ **Ehun pertsona ingururekin** egin dute lehen saioa.

✔ **Ehun bat pertsonarekin** egin dute lehen saioa.

✘ **Zortzi milioi pertsonatik gorak** ikusi dute partida telebistaz.

✔ **Zortzi milioi pertsonatik gorako** audientzia izan du partidak telebistaz.

✘ Inkesta ez da baliagarria, **ehun pertsonatik beherari** galdetu diete eta.

✔ Inkesta ez da baliagarria, **ehun pertsonari baino gutxiagori** galdetu diete eta.

Baino gehiago edo *baino gutxiago* erabiltzen denean, esapidea bera eta beraren aurreko sintagma deklinatu behar dira. Genitiboaren marka (*-ren* eta *-ko*), hala ere, *baino gehiago* edo *baino gutxiago* esapideari bakarrik erantzen zaio.

✔ Alkateak agindu du **auzo batean baino gehiagotan** jarriko dutela TAO sistema.

✔ Liburutegi honetan **hamar egunkari baino gehiagoren** bilduma osoak gordetzen dituzte.

“ A story with too many figures numbs the listener. Simplify wherever you can, round up or down, and try to tell the story without getting bogged down in numbers. (9) ”
The BBC news styleguide

(9) Zenbaki asko dauzkan testuak entzulea zorabiatu egiten du. Ahal duzun guztietan, soil itzazu, biribil itzazu, eta konta ezazu albistea zenbakiz josi barik.

4.2. Albiste-testu bikainetan

informazio-iturriak ematen dira

Kazetariak, askotan, beste inoren berbak jasotzen ditu. Halakoetan, gauza biak zehaztu behar dira albiste-testuan: berbak eurak eta nork esan dituen.

Deskribapena

4.2.a. Modu bi daude inork esandakoa jasotzeko.

- **Estilo zuzena:** inoren hitzak bere horretan errepikatzean datza. Idatzian, hitzok aipu-mar-ken artean jartzen dira: *Nik oso garbi entzun dut: «lker, egon zaitez hor geldi».*
- **Zehar-estiloa:** inoren hitzak geure berbaldian txertatzean datza: *Nik oso garbi entzun dut, eta geldi egoteko esan dizu.*

4.2.b. Zehar-estiloaren funtsak osagai bi dira.

- **Adierazpen-aditza:** *esan* eta parekoak. Hiztunaren asmoak eta hitzak interpretatzeko bidea ematen dute.
- **Perpaus osagarria:** inoren hitzak biltzen dituen esaldia. Perpaus menderatua da, eta *-la, -n, -tzeko* edo pareko ezaugarri bat hartu behar du.

Aholkuak

4.2.1. Ahozko albisteetan ez da oso egokia estilo zuzena. Ikus-entzuleengan inpaktu bat eragiteko erabil liteke, baina ahalik eta modu errazenean txertatu behar da testuan.

- ✘ «**Espainiako ekonomiak**», esan du Mariano Rajoy PPko presidenteak, «**atzera egin du azkenaldian**».
- ✔ «**Espainiako ekonomiak atzera egin du azkenaldian**»; hala esan du Mariano Rajoy PPko presidenteak.

Nolanahi ere den, estilo zuzena eta zehar-estiloa ez dira sekula nahasi behar.

- ✘ Bushen salaketak moderatuen amorrua ere piztu du Iranen. Herriaren buruzagitzan hainbat joera daudela onartu du Irango presidenteak, Khatamik. Baina «**honetan baturik gaudela**», gaineratu du.
- ✔ Bushen salaketak moderatuen amorrua ere piztu du Iranen. Herriaren buruzagitzan hainbat joera daudela onartu du Irango presidenteak, Khatamik. Baina **horretan baturik daudela** gaineratu du.

4.2.2. Albiste-testuetan adierazpenezko aditzik neutroenak *esan* eta *adierazi* dira. Besteren bat erabili nahi izanez gero, ondo begiratu behar zaio esangurari.

- ✘ Redondok **aitortu** du bere kontrako azpizokoa dabilzala.
- ✔ Redondok **salatu** du bere kontrako azpizokoa dabilzala.

- ✘ Erreskate taldeak aurkitutakoan, mendigoizaleak **baieztatu** du galduta ibili den bitartean ez dela beldur izan.
- ✔ Erreskate taldeak aurkitutakoan, mendigoizaleak **esan** du galduta ibili den bitartean ez dela beldur izan.

- ✘ Alderdi Karlistaren ordezkariak **aldarrikatu** zuen datorren urtean aurkeztuko dutela gazte mugimendua.
- ✔ Alderdi Karlistaren ordezkariak **iragarri** zuen datorren urtean aurkeztuko dutela gazte mugimendua.

4.2.3. Egokiagoa da adierazpen-aditza perpaus osagarriaren aurretik jartzea, informazio-karga orekatze aldera, eta ahozko hizkuntzarekin bat egite aldera.

- ✘ Euskaltegietako ikasleek, berriz, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza gutxiago eman arren, aurrera jarraitzeko asmoa **dutela adierazi dute**.
- ✔ Euskaltegietako ikasleek **adierazi dute** aurrera jarraitzeko asmoa **dutela**, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza gutxiago eman arren.

- ✘ Joseba Egibarrek bere alderdiak ez **dizkiela** proposamenaren oinarriak gainerakoei inposatuko **esan zuen**.
- ✔ Joseba Egibarrek **esan zuen** bere alderdiak ez **dizkiela** proposamenaren oinarriak inposatuko gainerakoei.

4.2.4. Aditza subjekturantz aurreratuz gero, errazagoa da esaldiaren atzealdean beste osagai batzuk kateatzea.

- ✘ Inuit Anaitasuna alderdiko buruak Danimarkak nazioarteko eskubide-itunak errespetatuko dituela **adierazi du**, 2005ean Groenlandiaren burujabetzari buruz egingo den referendumean.
- ✔ Inuit Anaitasuna alderdiko buruak **adierazi du** Danimarkak nazioarteko eskubide-itunak errespetatuko dituela, 2005ean Groenlandiaren burujabetzari buruz egingo den referendumean.

- ✘ Karguak berriro hartuko dituztela **agindu du** Trimblek, IRAk armak baztertuz gero.
- ✔ Trimblek **agindu du** berriro hartuko dituztela karguak, IRAk armak baztertuz gero.

4.2.5. Aditza aurreratuta, nahikoa da bat bakarra perpaus guztietarako, sinonimo bila ibili barik.

- ✘ Batasuneko bozeramaileak gaitzespenak antzuak direla **adierazi du**, eta gatazkari irtenbideak bilatu behar zaizkiola **gaineratu du**.
- ✔ Batasuneko bozeramaileak **adierazi du** gaitzespenak antzuak direla, eta irtenbideak bilatu behar zaizkiola gatazkari.

4.2.6. Aditza aurreratuz gero, esaldi artifizialak erraz saihets daitezke. Artifizial samarrak dira *-la* ezaugarriaren eta aditzaren artean osagaiaren bat txertatuta daukaten esaldiak. Era berean, albiste-testuetan “ortopediko” samarrak dira «zera esan zuen:» erako esaldiak.

- ✘ Leon Schirman ikertzaileak datorren astean argitaratuko duen lanean Frantziak Mata Hari erabili **zuela** Lehen Mundu Gerrako gaitzak konpontzeko **dio**.
- ✔ Leon Schirman ikertzaileak datorren astean argitaratuko duen lanean **dio** Frantziak Mata Hari erabili **zuela** Lehen Mundu Gerrako gaitzak konpontzeko.
- ✘ Gobernuko bozeramaileak **zera aurreratu du**: luze gabe deituko dituztela hauteskondeak.
- ✔ Gobernuko bozeramaileak **aurreratu du** luze gabe deituko dituztela hauteskondeak.

4.2.7. Ezezko esaldietan perpaus osagarriari *-nik* jar dakiok, baina ez da derrigorrezkoa, eta hizkera askotan ez da *-nik* erabiltzen. Erabiltzekotan, *-la* (1) eta *-nik* (2) bereizi egiten dira.

- ✔ (1) Ministro kontseiluaren ostean, bozeramaileak **ez du esan** Gobernuak RTVEko zuzendaria **aldatuko duela**.
- ✔ (1) Ministro kontseiluaren ostean, bozeramaileak **isilpean gorde du** Gobernuak RTVEko zuzendaria **aldatuko duela**.
- ✔ (2) Ministro kontseiluaren ostean, bozeramaileak **ez du esan** Gobernuak RTVEko zuzendaria **aldatuko duenik**.
- ✔ (2) Ministro kontseiluaren ostean, bozeramaileak **gai asko aipatu ditu**, baina horietako **bat ez da izan** RTVEko zuzendariaren **aldaketa**.

Esaldia ezezka ez badago, ez dago aukerarik. Nahi eta nahi ez, *-la* jarri behar da. Esate baterako, *ukatu* aditza erabiltzen denean.

- ✔ Kazetariak galdetu diotenean, guztiz haserre ukatu du asteburuan ehizara **joan zenik**.
- ✔ Kazetariak galdetu diotenean, guztiz haserre ukatu du asteburuan ehizara **joan zela**.
- ✔ Kazetariak galdetu diotenean, guztiz haserre ukatu du asteburuan ehizara **joan izana**.

Beste bi kasutan ere derrigorrezkoa da *-la*. Lehenik, *egia da, gauza jakina da* eta antzekoak ezezka ipinita ere, *-la* erabili behar dugu.

- ✔ Ez da hain gauza jakina Kanadako estatuburua Ingalaterrako erregina [dela](#).

Bigarrenik, *ahaztu* aditzarekin osaturiko esaldietan *-la* erabili behar dugu baiezka zein ezezka.

- ✔ Lula da Silva Brasileko presidente berriak ez du inoiz ahaztuko bera ere lanik apalenetan [hasi zela](#) gaztetan.

4.2.8. Aginduzko aditzen osagarriari *-tzea* edo *-tzeke* jar dakiok. Bien arteko aldea aginduaren intentzioan eta indarrean dago. Aditzak aginduzko eta ezarpenezko karga handia duenean, beraren osagarriari *-tzeke* jartzen zaio.

Exijitu aditzak horrelako karga du ia beti. Beste aditz batzuei hiztunak ematen die halako karga: *eskatu*, *agindu*...

- ✔ Auzoko kaltetunak udaletxearen aurrean bildu dira, eta ezbeharra sakonki [ikertzeko exigitu](#) diote alkateari.
- ✔ Aita Santuak ezkontza homosexualen kontra [egiteko eskatu](#) die epaile katolikoei.

Agindua nori ezartzen zaion esaten ez denean, hizkera leundu eta arindu egiten da. Halako agindu leunagoetan, *-tzea* jartzen zaio osagarriari.

- ✔ Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak saio nuklearrak bertan behera [uztea eskatu](#) du.

4.2.9. Besteren hitzak aditzera emateko, lokuzioak ere erabil daitezke. Albiste-testuetan oso baliagarriak izaten dira esaldi korapilatsuak arintzeko.

- ✔ Israelgo Gobernuaren bozeramaileak [esan duenez](#), atentatuak argi adierazten du Arafaten bake hitzak hutsalak direla.
- ✔ Idoia Zenarruzabeitia lehendakariorde [aren hitzetan](#), akordio bidea latza izan da, baina merezi izan du.
- ✔ Azkarate Jaurlaritzako bozeramaile [aren esanetan](#), datorren astean egingo dute batzarra Madrileko eta Gasteizko nekazaritza arduradunek.

“Your listener cannot see the quotation marks in your copy. If you feel you must use a direct quote, alert your listener it’s coming. (10)”

DIS Broadcast Writing Style Guide

(10) Entzuleak ezin ditu zure testuko aipu-markak ikusi. Aipu zuzen bat erabili behar izatekotan, ohartaraz ezazu entzulea aurretik.

4.3. Albiste-testu bikainetan

gerta daitekeena azaltzen da

Errealitate subjektiboak bere tokia du albiste-testuetan. Gertakarien zergatiaz, protagonisten asmoez, datu lausoez, etorkizuneko egoerez eta abarrez ari denean, kazetariari beharrezko zaio kontakizunean susmoak, usteak, alternatibak, eta ahalak eta ezinak azaltzea.

Deskribapena

4.3.a. Potentziala aditz-modu zabal bat da.

- **Orainaldiko potentziala:** *naiteke* eta *dezaket* aditz-sailak hartzen ditu.
- **Iraganaldiko potentziala:** *nintekeen* eta *nezakeen* aditz-sailak hartzen ditu.
- **Alegiazko potentziala:** *ninteke* eta *nezake* aditz-sailak hartzen ditu.

4.3.b. Potentzialak posible denaren eremu osoa biltzen du. Eremu horretan adiera-multzo nagusi bi bereiz daitezke.

- **Posibilitatea:** susmoa, ustea, ziurtasunik eza, hipotesia, probabilitatea...
- **Ahalmena:** ahala edukitzea, gertu egotea, gaitasuna, baimena, abagunea...

Aholkuak

4.3.1. Posible izatea edo ez izatea adierazteko, potentziala erabil daiteke.

- ✔ Hamaseko buruzagia atentatuan hil eta gero, gerrillari islamistek mendekua **har dezakete**.
- ✔ Sarrera berezia daukaten gonbidatuak agertoki ondoko mahaietan **eser daitezke**.
- ✔ Emakumeak **ezin daitezke** soldadu **irten** San Martzialeko alarde tradizionalan.
- ✔ Mundu osoko kazetariak etorri dira hauteskunderen jarraipena egitera, lehen ministroaren alderdia parlamentutik kanpo **gera daiteke** eta.

4.3.2. Posible izatea edo ez izatea adierazteko, *ahal* eta *ezin* aditz modalak erabil daitezke.

- ✔ Euskal Telebistak prest dauka buruz buruko finalaren emankizuna, ikusleek zuzenean **jarraitu ahal izan dezaten**.

- ✓ Alkizak belauna guztiz sendatuta eduki zuen ostiralerako, eta entrenatzaileak igandeko ha-
maikakoan sartu ahal izan zuen.

Kontuz *ahal* eta *ezin* erabiltzean egiten diren akatsekin.

- ✗ Filmaren lehen emanaldia Donostian **ikus** ahal izan dute.
- ✓ Filmaren lehen emanaldia Donostian ikus ahal izan dute.
- ✗ Suhiltzaileek arratsaldean amaituko dute garajeetatik ura ateratzen, eta bizilagunek bihar sartu
ahal izango **dute**, euren autoak ikuskatzera.
- ✓ Suhiltzaileek arratsaldean amaituko dute garajeetatik ura ateratzen, eta bizilagunak bihar sartu
ahal izango dira, euren autoak ikuskatzera.

4.3.3. Posible izatea edo ez izatea adierazteko, lokuzioak daude aukeran. Lokuzioen bidez, gainera, gehiago zehatz daiteke adiera.

Susmoa

- ✗ Nicolas Sarkozy dibortziatuko **denaren susmoa** prentsa arrosak zabaldu du.
- ✓ Nicolas Sarkozy dibortziatuko den susmoa / delako susmoa prentsa arrosak zabaldu du.
- ✗ Maletan kokaina **zeukanaren ustean** durangar bat lau ordu eduki dute atxikita Bogotako
aireportuan.
- ✓ Maletan kokaina zeukan ustean / zeukalako ustean durangar bat lau ordu eduki dute atxikita
Bogotako aireportuan.
- ✓ Lapurrek, dirudienez, hiru gatibu dituzte banku barruan.
- ✓ Ekonomia ministroa gaur bilduko da sindikatuekin,
antza denez.
- ✓ Jaurlaritzarekin akordioa lortzeko epea amaitutzat
emanda, litekeena da gaur bertan onartzea Ministro
Kontseiluak EAEko kontzertu ekonomikoa luzatzea.
- ✓ Estatu Batuek atzerriko altzairuari ipini dioten zerga
dela eta, baliteke Europar Batasuneko ministroek bi-
lera egitea bihar, neurriak aztertzeke.

“Your audience no
doubt knows what NASA,
NATO an even OPEC are,
but have they ever heard
of DINFOS? Be sure you
spell out an unfamiliar
acronym when you use the
first time. (11)”
DIS Broadcast Writing Style Guide

(11) Zalantza barik, zure ikus-entzuleek badakite zer diren NASA, NATO, bai eta OPEC ere, baina entzun dute inoiz DINFOS? Hain arrunta ez den akronimo bat lehen aldiz erabiltzean, azaldu egin behar duzu.

Probabilitate handia

- ✔ Hamaseko buruzagia atentatuan hil eta gero, **ziurrenik** gerrillari islamistek mendekua hartuko dute.
- ✔ Egunotako euriak eragin du, **segur aski**, baserria aurretik eraman duen luizia.

Gerturik egotea

- ✔ Sendatu da, eta **jokatzeko moduan dago**.

Egokiera, abagunea

- ✔ Afrikan, hamar umetatik bakar batek **du ikasteko aukera**.
- ✔ Osasunak **aukera ederra du** hurrengo igandeko partidari hiru puntu **eskuratzeko**, Levante oso makal dabil eta.

Gaitasuna

- ✔ Hizkuntza Politikak eginiko ikerketaren arabera, arduradun politikoen % 51 euskaraz **hitz egiteko gai dira**.

4.3.4. Probabilitatearen berri emateko, ez da -tzeko aukera lokuzioa erabiltzen. Berez, -tzeko aukera lokuzioaren bidez abagunea edo egokiera adierazten da.

- ✘ Teilatua **erortzeko aukera dago**.
- ✔ Teilatua **erortzeko arriskua dago**.
- ✔ Teilatua **eror daiteke**.

- ✘ Minbizidun emakumeen alabek gaitza **garatzeko aukera gehiago dute**.
- ✔ Minbizidun emakumeen alabek gaitza **garatzeko probabilitate handiagoa dute**.

- ✘ Kilometroetara joateko autoa erabiltzen baduzue, herrigunean egokitu den plazan **aparkatzeko aukera daukazue**.
- ✔ Kilometroetara joateko autoa erabiltzen baduzue, herrigunean egokitu den plazan **aparka dezakezue**.

4.3.5. Posibilitatea partikula modalen bidez adieraz daiteke. Formalena *bide* da, baina ez da oso ezaguna. Ezagunago dira *omen* / *ei*, baina albiste-testuetan ez dute erabilera oso zabala, susmoa edo ustea baino gehiago informazioa inori entzuna dela agertzen dute eta.

✔ George Bush ez da gobernuburuen bilerara joan. Camp Daviden omen dago atsedena hartzen.

✔ Tony Blair Jacques Chiracekin bilduko bide da datorren astean.

4.3.6. Albiste-testuetan, geroaldia ez da egoki ustea edo susmoa adierazteko, ahozko euskaran asko erabili arren. Gainera, gaizkiulertuak eragin ditzake.

✘ Orain arte hamabi gorpu aurkitu dituzte, baina hilak askoz gehiago **izango dira**.

✔ Orain arte hamabi gorpu aurkitu dituzte, baina litekeena da hilak askoz gehiago izatea.

4.3.7. Kausak susmo edo uste gisa aurkezteko, *-lakoan* erabiltzen da.

✔ Ertzaintzak bost lagun atxilotu ditu Zornotza inguruan, goizaldean hiru autori su eman diete-lakoan.

✔ Zenarruzabeitiak seriotasun handiagoa eskatu du egoera aztertzeke, egun gertatzen denaren ondorioak demokraziaren kalterako izango direlakoan.

4.4. Albiste-testu bikainetan

inguruabarrak ematen dira

Albiste-testuetan, kontakizun bat osatzeko, nahitaezkoa da egoerak, bitartekoak, moduak eta abar azaltzea. Osterantzean, testuinguruaren berri eman gabe, testua sinopsi hutsa izango litzateke.

Aholkuak

4.4.1. Gertaera baten testuingurua azaltzeko, *-la* edo *-larik* daraman esaldia erabil daiteke.

- ✔ Hiru mendigoizale hil dira Anboton, tontorretik beherantz **zetozela**.
- ✔ Bi ikusle futbol-zelaira sartu dira, jokalaria penaltiaren jaurtiketa **prestatzen ari zirelarik**.

Esaldiaren amaieran ez ezik, *-la* edo *-larik* daukaten azalpenak hasieran ere ipini daitezke.

- ✔ Getariako portuan maniobrak **egiten ari zirela**, balea bat ikusi dute.

4.4.2. Istripu edo ezbehar bat zein egoeratan gertatu den deskribatzeko, aditz-partizipioari *-ta* eranstean zaio. Horrek kausa-kutsua ematen dio esaldiari.

- ✔ Langile bat hil da, teilatutik **erorita**.

Baliteke langilea teilatutik erori ostean hiltzea, anbulantzian, ospitalera bidean. Baina kazetariak ez du noiz hil den jakinarazi nahi. Ezbeharraren inguruabarrak deskribatu nahi ditu.

- ✘ Emakume bat larri zauritu da, kamioi batek azpian **harrapatu ostean**.
- ✔ Emakume bat larri zauritu da, kamioi batek azpian **harrapatuta**.
- ✘ Xalak eta Laskurainek finalerako txartela lortu zuten atzo, Bengoetxea eta Beginori 22 eta 20 **irabazi ondoren**.
- ✔ Xalak eta Laskurainek finalerako txartela lortu zuten atzo, Bengoetxea eta Beginori 22 eta 20 **irabazita**.

Egoeraren deskribapenari denbora-kutsua eman nahi bazaio, *-tzean* erako denborazko perpausa osa daiteke.

- ✘ Alemaniako telebista bateko hiru langile zauriturik gelditu dira Mostarren, mortero batek **ez-tanda egin ostean**.
- ✔ Alemaniako telebista bateko hiru langile zauriturik gelditu dira Mostarren, mortero batek **ez-tanda egitean**.

4.4.3. Bata bestearen atzean jazotzen diren gertaera bi kontatzeko, *-ta* edo *-rik* eranstean zaio lehenaren aditzari. Horrela, bigarrenaren testuingurua zein den azaltzen da.

- ✘ Arratsaldeko zortzi eta erdietan berriro izango gara zuekin, egunak ordura arte eman duen guztia **bilduz**.
- ✔ Arratsaldeko zortzi eta erdietan berriro izango gara zuekin, egunak ordura arte eman duen guztia **bilduta**.
- ✔ Bere burua inguratua **ikusirik**, lapurtutako dirua zakarrontzi batean ezkutatu nahi izan du.

Batzuetan, baldintza-kutsua igartzen da halakoetan.

- ✔ Orain, begietako itzal bat duzu opari, Max Factorren maskara bat **erosita**.

Gertaeren arteko erlazioa denborazkoa dela nabarmendu nahi izanez gero, denborazko perpausak daude.

- ✔ Bere burua inguratua **ikusi duenean**, lapurtutako dirua zakarrontzi batean ezkutatu nahi izan du.
- ✔ Orain, Max Factorren maskara bat **erosten duzunean**, begietako itzal bat duzu opari.

4.4.4. Denboran bat egiten duten jazoera bi kontatzeko, *-z* eranstean zaio bietako baten aditzari. Horrela, bestearen testuingurua zein den azaltzen da.

- ✔ Irakasle guztiak kalera irten dira, lan-baldintzak hobetzea **eskatuz**.
- ✔ Atzeritik etorritako taldeek Portugaleteko kaleak zeharkatu dituzte, euren doinuak **kantatuz eta dantzatuz**.

Askotan, gainera, *-z* markak modu- edo bitarteko-kutsua ematen dio esaldiari.

- ✔ Entzunaren **entzunez**, udako kantak buruan txertatuta geratzen zaizkigu betiko.

- ✔ Klik pare bat [eginez](#), mundu zabaleko informazio guztia aurki dezakezue eitb24.com gunean.

Batzuetan ez da hain garrantzitsua izaten gertaera bat beste baten testuingurua dela azpimarratzea. Kazetariari beste era bateko harremana azaltzea interesa dakioko.

- ✔ Irakasle guztiak kalera irten dira, lan-baldintzak hobetzea [eskatzera](#).

- ✔ Klik pare bat [egin](#), [eta](#) mundu zabaleko informazio guztia aurki dezakezue eitb24.com gunean.

4.4.5. Ondo jakin behar da testuinguruaren berri ematen duen perpausa aukeratzen. Izan ere, gaztelaniaren esamoldeak imitatzeagatik, alderantziz aurkezten dira gertaeraren berri ematen duen perpausa eta testuinguruaren berri ematen duena.

Hurrengo adibidean, garbi dago testuingurua partidaren amaiera dela, eta gertaera, Acuñaeren gola.

- ✘ Romaredan bana ziren Zaragoza eta Real Madril. Partida amaitzeko bi minutu falta ziren, Toro Acuñaek igandeko golik politena [sartu zuenean](#).
- ✔ Romaredan bana ziren Zaragoza eta Real Madril. Partida amaitzeko bi minutu [falta zirela / zirelarik](#), Toro Acuñaek igandeko golik politena sartu zuen.
- ✘ Bi auto behar baino arinago zetozen autobidean, olio-orban batengatik [labain egin dutenean](#).
- ✔ Bi auto behar baino arinago zetozen autobidean, [eta halako batean](#) olio-orban batengatik labain egin dute.

Beste adibide honetan, testuingurua Karidadeko Bentaren agurra da. Eta arrakasta, ondorio bat da, jendearen harrera onaren ondorioa.

- ✘ Karidadeko Bentak Euskal Herri osoa korritu du agurreko biran, arrakasta handia [lortuz](#).
- ✔ Karidadeko Bentak Euskal Herri osoa korritu du agurreko biran, [eta](#) arrakasta handia [lortu du](#).
- ✘ Asteazkenean eguraldiak okerrera egingo du, orduak aurrera egin ahala hodeiak [ugarituz](#).
- ✔ Asteazkenean eguraldiak okerrera egingo du, [eta](#) orduak aurrera egin ahala hodeiak [ugaritu egingo dira](#).

“The phrase was in the news headline, the cue and the piece, all in a matter of minutes. Any power it might have had was diluted by overuse. (12)”
The BBC news styleguide

(12) Esaldia titularrean, sarreran eta bideoan erabili da oso minutu gutxiko tartean. Esaldiak zeukan indar guztia gehiegi erabilerak deuseztatu du.

5. Albiste-testu bikainak

eragozpenik gabe gauzatzen dira ahoz

Albiste-testuak belarritik heltzen zaizkie ikus-entzuleei. Kazetariak esaten dituen arte, testuok ez dira ezer. Esateko modua desegokia bada, komunikazioa zaildu egiten da. Beraz, albiste-testuen berezko unea ahora ekartzeko unea da. Une horretan eragozpenak saihesteko, kazetariak hiru mailatan jarri behar du arreta: banakako hots eta hitzetan (5.1.), hots-multzoetan (5.2.), eta esaldi eta testu osoetan (5.3.).

5.1. Albiste-testu bikainetan

fonemak arauzko eran ahoskatzen dira

Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan Euskaltzaindiaren *Euskara batuaren ahoskera zaindua* deritzon araua erabiltzen da erreferentzia moduan. Arau horrek hainbat ahoskatze-eredu bereizten ditu, zainduenetik hasi, eta hortik behera. Eredua zenbat eta zainduagoa izan, orduan eta handiagoa da bat-etortzea grafiaren eta ahoskeraren artean. Euskarazko albistegiei erdiko maila baino apur bat goragoko eredua dagokie.

Deskribapena

5.1.a. Hizkuntza bakoitzak bere hotsak ditu. **Fonema** esaten zaie. Euskararen fonemak honela sailka daitezke.

Bokalak: <a>, <e>, <i>, <o>, <u>.

Kontsonanteak: gainerako guztiak. Komeni da ohiko izen batzuk ezagutzea.

- **Leherkari ahostunak:** <d>, <g>, .
- **Leherkari ahoskabeak:** <t>, <k>, <p>, <f>.
- **Txistukari frikariak:** <s>, <z>, <ʃ> (**xaxatu** bezala).
- **Txistukari afrikatuak:** <ts>, <tz>, <tʃ> (**txotx** bezala).
- **Sudurkariak:** <m>, <n>, <ɲ>.
- **Besteak:** <r>, <rr>, <l>, <ll>, <h>, <χ> (gaztelaniaz **jengibre** bezala), <y> (gaztelaniaz **yoyó** bezala).

Aholkuak

5.1.1. Euskaraz g idazten denean, <g> ahoskatzen da, eta maileguetan ere horretara ohitu beharko lukete kazetariak eta esatariak, batik bat zientzia eta tekniketako erroetan.

✔ geologia <geologia>

✔ gigahertz <gigaertz>

Euskaltzaindiak salbuespenak onartzen ditu, baina mailegu jakin batzuetan bakarrik. Hiztegi Batuan markatuta daude.

✔ gin <yin>

5.1.2. Euskal ondareko hitzetan j idazten denean, <y> ahoskatzen da.

✔ joan <y oan>, jaun <y aun>, jaio <y a io>, josi <y o si>

Maileguetan ere <y> ahoskatzera jo beharko litzateke, baina, nolanahi ere, <χ> onar daiteke.

- ✔ jertse <χertse>, ijito <iχito>

5.1.3. Hegaldeko euskalkietan, h-a mutua da. Iparraldekoetan, hasperen bat egiten da.

- ✔ hau <au> [HEGO] / <hau> [IPAR]

Joan aditzaren flexioetan h idazten denean, <χ> ahoskatu behar da.

- ✔ zihoan <ziχoan>

5.1.4. Euskarazko hitzetan il eta in idazten denean, aukeran dago <ll> eta <ñ> ahoskatzea, edo idatzi bezala ahoskatzea. Erabat gaitzesgarria da il grafia <y> ahoskatzea.

- ✘ mutila <muti**ya**>
- ✔ mutila <muti**la**> / <muti**lla**>
- ✔ mina <mi**na**> / <mi**ña**>

5.1.5. Garrantzitsua da s, z eta ts, tz pareak ondo bereiztea.

- ✔ jausi <yau**si**>, jauzi <yau**zi**>
- ✔ etsi <e**tsi**>, etzi <e**tzi**>

Maileguetan, alde batera utzi behar dira ahoskera arrotzak, batik bat z grafia <θ> ahoskatzea, gaztelaniaz **z**ur**c**ir bezala.

- ✘ prozesu <pro**θ**esu>
- ✔ prozesu <pro**z**esu>

5.1.6. Euskal ondareko hitzetan, x grafia <ʃ> ahoskatzen da.

- ✔ axola <af**ola**>

“Some journalists assume that newspaper English is the language of all journalism. It is not. Broadcast journalism, written for the ear, requires a different approach. Our writing has to be simpler, clearer and more natural. (13)”
The BBC news styleguide

(13) Hainbat kazetarik jakintzat ematen dute egunkarietako ingelesa dela kazetaritza osoko hizkuntza. Ez da hala. Ikus-entzunezko kazetaritzari, belarrirako idatzia baita, bestela heldu behar zaio. Gure idazketak sinpleagoa, argiagoa eta naturalagoa izan behar du.

Maileguetan x letra hitz-hasieran dagoenean <f> ahoskatu behar da, eta, hitz-amaieran edo bokal artean dagoenean, <ks>.

- ✔ xilofago <f*il*ofago>
- ✔ sexu <se*ks*u>, fax <fa*ks*>

5.1.7. Albiste-testuetan ez da egoki palatalizazioa. Hitzun batzuek, nahiko automatikoki, -tt- bihurtzen dute -it- multzoa, eta x bihurtzen dituzte txistukari asko, baina bustidura horiek hizkera afektiboari dagozkio.

- ✘ ditu <d*itt*u>, ito <i*tt*o>
- ✔ ditu <d*it*u>, ito <i*t*o>
- ✘ sagu <f*ag*u>, musu <mu*f*u>
- ✔ sagu <s*ag*u>, musu <mu*s*u>

5.1.8. Munduko nazioak, hiriburuak eta hiri nagusiak, eskualderik ezagunenak eta elementu geografikorik garrantzitsuenak, euskal grafiara egokitzen direnez gero, euskararen legeen arabera ahoskatuko dira.

- ✔ Norvegia <no*r*be*g*ia>, Belgika <be*l*gika>, Egipto <e*g*ipto>
- ✔ Grezia <gre*z*ia>, Belize <be*l*z*e*>, Uzbekistan <uz*z*bekistan>
- ✔ Aljeria <a*l*yeria>, Japonia <y*a*ponia>, Jamaika <y*a*maika>
- ✔ Haiti <h*a*iti>, Habana <h*a*bana>, Bahrain <b*a*rain>

Izen batzuetan h-a ahoskatu egiten da: Doha (Qatar), Hanoi (Vietnam), Harare (Zimbabwe), Helsinki (Finlandia), Hong Kong (Txina), Honiara (Salomon), Sahara, Windhoek (Namibia).

Jatorrizko hizkuntza zein den, <χ> hotsa hainbat erataria idatzita aurki daiteke.

- ✔ Argentina <arχentina>, Mexiko <meχiko>, Texas <teχas>, Khartum <χartum>

Luxenburgo ahoskatzeko, ostera, arau normalari jarraituko zaio: <luksenburgo>, x letra bokal artean dago eta.

“It’s usually better to give the full name of an organisation at first reference and then use its short form later. (14)”

The BBC news styleguide

(14) Hobe izaten da lehen aipamenean osorik ematea erakunde baten izena, eta ondoren forma laburra erabiltzea.

5.2. Albiste-testu bikainetan

hots-bilkurak hizketa naturalean bezala ebazten dira

Hotsak ez dira banan-banan esaten. Hitz egiten denean, hotsak kate batean jartzen dira, ia tarterik utzi gabe hots batetik bestera. Fonemak bata bestearen ondoan jarrita, elkarri eragin, eta aldatu egiten dira. Aldaketa batzuk ahozko euskara arduragabeen gertatzen diren fenomenotzat jotzen dira, eta albiste-testuak esatean baztertu egin behar dira. Beste batzuk, berriz, euskararen berezko ezaugarriak dira, eta errespetatu egin behar dira.

Deskribapena

5.2.a. Mintzakatean bokal bi elkarren ondoan gertatzen direnean, mota bitako bilkurak era daitezke.

- **Diptongoak:** bokal biak silaba bakarrean ahoskatzen dira. Euskararen diptongoak hauek dira: <au>, <ai>, <eu>, <ei>, <oi> eta <ui>. Era honetara ere idatz daitezke, silaba bakarra dela erakusteko: <aw>, <aj>, <ew>, <ej>, <oj> eta <uj>
- **Hiatoak:** bokal bakoitza silaba banatan ahoskatzen da.

Aholkuak

5.2.1. Bokal-bilkuretan lehen bokala *i* edo *u* bada, hiato gisa ahoskatzen dira. Arreta berezia eman behar zaio -*zio* atzizkiari, silaba bi ahoskatu behar dira eta.

- ✘ duala <dwa-la>, zientzia <zjen-tzja>, nazioa <na-zjo-a>
- ✔ duala <du-a-la>, zientzia <zi-en-tzi-a>, nazioa <na-zi-o-a>

5.2.2. Ez adberbioak hots-aldaketak eragiten ditu aditz laguntzailearekin elkartzen denean.

Ostean *d*- datorrenean, *t*- bihurtzen da.

- ✔ ez dut <eztut>

Ostean *z*- daukanean, -*tz*- hotsa eratzen dute.

- ✔ ez zion <eztion>

Ondoren *b*- eta *g*- datozenean, *p*- eta *k*- bihurtzeko joera dago.

- ✔ ez bada <ezpada>, ez ginen <ezkinen>

Ondoren *n-*, *l-* edo *h-* datorrenean, hiztun batzuek *-z* isildu egiten dute. Zilegi da albiste-testuetan gauza bera egitea, baina osorik ahoskatzea ere zilegi da.

- ✔ ez nau <eznau> / <enau>

5.2.3. *Bait-* menderagailuak hots-aldaketak eragiten ditu aditz laguntzailearekin elkartzen denean. Idatziz, laguntzaileari lotuta ematen da, hots-aldaketa eta guzti.

Ostean *d-* datorrenean, kontsonante hori galdu egiten da.

- ✔ dut: baitut

Ostean *z-* daukanean, *-tz-* multzoa eratzten dute.

- ✔ zion: baitzion

Ondoren *g-* datorrenean, *k-* hotsa eratzten dute.

- ✔ ginen: baikinen

Ondoren *n-*, *l-* edo *h-* datorrenean, menderagailuaren amaierako *t* letra galdu egiten da.

- ✔ nintzen: bainintzen, luke: bailuke, haiz: baihaiz

5.2.4. Hitz bi elkarren ondoan jarri eta *n* / / / *r* baten ostean *s* / *z* bat gertatzen bada, zilegi da <ts> / <tz> ahoskatzea, baina ez da derrigorrezkoa.

- ✔ esan zuen <esannzuen> / <esanntzuen>

5.2.5. Hitz bi elkarren ondoan jarri eta *r* baten ostean bokal bat gertatzen bada, *r* hori gogorra edo biguna den bereizten da ahoskeran.

- ✔ ur hotza <urotza>, plater ederra <platererderra>

- ✔ hur handia <urrandia>, enbor eroria <enborreroria>

5.2.6. Hitz bi elkarren ondoan jartzean ahozko euskaran gertatzen diren gainerako fenomenoak ez dira albiste-testuak esateko egokiak.

- ✘ egiten du <egiteu>, egiten zuen <egitezuen>
- ✔ egiten du <egitendu>, egiten zuen <egitenzuen> / <egitentzuen>

- ✘ ez joan <etxoan>, bost neska <bosneska>, gizonak bai <gizonapai>
- ✔ ez joan <ezyoan>, bost neska <bostneska>, gizonak bai <gizonakbai>

Lokuzioetan malguago joka daiteke. Izan ere, inoiz ahoskera aintzat hartuta idatzi izan dira: “batipat” (arauzko forma *batik bat* da), “bapatean” (arauzkoa: *bat-batean*), “noizipein” (arauzkoa: *noizik behin*)... Lokuzio batzuk fosilduta daude, eta hots-batura eta guzti idazten dira: *honezkero, lehenbailehen, lauzpabost*..

“Perpau gramatikalak konbinatuz testu desegokiak sor daitezke. Bestela esateko, zuzentasun gramatikala gutxieneko baldintza izango da testu egokiak sortzeko, baina ez baldintza nahikoa.”
Euskal estilo libururantz

5.3. Albiste-testu bikainetan

doinua mezuaren euskarri da

Irrati-telebistako kazetariarentzat komunikazio-baliabide ahaltsua da ahotsa. Testua ahots goraz esan ahala, mezuaren esanguretara egokitzen ditu modulazioa, tonua, erritmoa, etenak eta enfasiak. Horrela, albiste-testuari zentzua eta batasuna ematen dizkio.

Deskribapena

5.3.a. Ahoz gauzatzen diren testuetan elementu hauek bereiz daitezke.

- **Azentua:** silaba batzuei ematen zaien ahoskatze-indar handiagoa. Euskal hitzek ez dute azentu finkorik, eta, hitz-andana baten barruan, testuari ematen zaion enfasiak agintzen du azentuak non jartzen diren.

- **Etenak:** mintzakateko geldialdiak. Eten biren arteko hitz-andanak nolabaiteko zentzua izan behar du, eta ez du izaten 12-15 silaba baino gehiago.

Eten laburrak irudikatzeko marra bertikal bat (|) jartzen dugu, eta eten nabarmenagoak irudikatzeko, bi marra bertikal (||): Izan ere, *Jonek gezurra esan du* <izan ere || yonek | gezurra esan du ||>.

- **Doinuera:** mintzakatearen melodia. Euskaraz, hiztun guztiek “kantatzen” dute berdintsu, euskalkia gorabehera, eta nahiko erraz bereizten da euskararen doinuera ez dena.

Doinueraren gorabeherak irudikatzeko, goranzko geziak (↑) eta beheanzko geziak (↓) jartzen dira: *Ni ere nekatuta nago gaur* <ni ere ↑ || nekatuta nago gaur ↓ ||>.

Aholkuak

5.3.1. Aditzak eta bere inguruko osagaiek multzo foniko bakarra osatzen dute. Multzo horri gunea deritzo; aurretik eta atzetik isilune nabarmen bana egiten da, eta tartean, eten bat ere ez.

- ✔ Iragarrita zegoenez || [larunbatean jokatuko dute finalerdia](#) || San Mamesen bertan.

Idatzian, eten horiek koma bidez irudikatzen dira.

- ✔ Iragarrita zegoenez, larunbatean jokatuko dute finalerdia, San Mamesen bertan.

Gunearen doinuerak mendi baten irudia ematen du. Gailurra aditzaren aurreko osagaian dago, osagai horren lehen azentuan, hain zuzen.

☑ ↑ larunbatean jokatuکو dute ↓




Aditzaren aurrean, edo galdegaia, edo —esaldi neutroetan— berezko osagarria jartzen da. Galdegaia eta berezko osagarria aditzaren ostean ere jar daitezke, ahozko erabileran batez ere. Kasu horretan doinueraren gailurra aditzaren osteko osagaian gertatzen da.

☑ Inor agertu ez denez || ↑ esan dute igandean jokatuکو dutela ↓ ||



Aditzaren ostean hizpideabarren bat badago, esaldiaren melodian tontortxo bat igartzen da; beheranzko joera une batez aldatu egiten da.

☑ ↑ larunbatean jokatuکو dute finalerdia ↓




5.3.2. Gunearen ostean gehikuntzaren bat badago, gunearen doinuera ez da beherantz eginda amaitzen; esekita bezala uzten dugu. Gehikuntzaren beraren doinuerak mendi baten irudia ematen du.

☑ larunbatean jokatuکو dute finalerdia ↑ || ↑ San Mamesen bertan ↓ ||



☑ atxilotuetako bat anbulantzian eraman dute ↑ || ↑ buruan zauri bat zeukan eta ↓ ||



5.3.3. Mintzagaia multzo foniko oso bat da. Multzo horren ostean, gunearen aurretik, eten nabarmen bat egiten da, eta doinua goian esekita uzten da.

☑ Hitzarmena sinatu dute etxebizitza arloan. Akordioak ↑ || etxebizitza babestuak eraikitzeکو erraztasunak ematen ditu.

☑ Zazpi milioi urteکو giza garezurra aurkitu dute Txaden. Garezurrak ↑ || gizakiaren eta tximinoen ezaugarriak ditu.

☑ Negoziazioak amaituta ↑ || sindikatuek grebari eutsiko diote.

5.3.4. Zentzuagatik lotuta dauden hitzak andana berean esaten dira. Hitz-andana bakoitzaren doinuera multzo foniko osoaren melodiak baldintzatzen du, baina, horrez gainera, badira beste faktore batzuk: andanaren silaba-kopurua, silaba azentudunak, osagai-motak... Horren ondorioz, doinueran tontortxoak, gorabeherak, kiribilak eta abar igarriko dira.

✔ | | Aurreko hauteskundeak irabazi zituen gizona | parlamentutik kanpo gelditu da orain.

✔ Jarraian | |, Estatu Batuetako presidentek | hitza hartu du.

✔ | | Autobus barruko sei bidaiariak | indarrez atera dituzte.

Kasu jakin batzuetan, agerian dago hainbat hitz zentzuak lotzen dituela andana bakarrean.

Hitz-elkarketa

✔ | | Ama-alabak | sukaldean zeudela | |, gas-leherketa gertatu zen.

✔ Palestinarrek | behar-beharrezkotzat | jotzen dute gertaerak ikertzea.

Lokuzioak

✔ | | Aldez aurretik | prestatu behar dira eraman beharrekoak.

✔ Londres osoa kalean izan da | goizean goizetik | |, Erregina Amari agur esaten.

Aditz-multzoa




✔ | | Ez omen dakite | nondik bideratu ikerketa.

✔ Jazza | atsegin baldin baduzue | |, zorioneko zaudete.

5.3.5. Zentzuak bananduta dauden hitzak eten batez bereizten dira. Kasu jakin batzuetan, agerian dago hainbat hitz zentzuak banantzen dituela.

Lokailuak

Idatzian koma batez banatzen dira mintzagaia eta ondoren datorren lokailua, baina ahozkoan ez da eten nabarmenik igartzen, doinueraren inflexio bat baizik. Etena, lokailuaren ostean egiten da.

- ✔  Bayernek **aldiz** | | zail dauka irabaztea.
- ✔  Euskal Herrian **beraz** | | banatuta egingo dute greba.
- ✔  Inputatuak **baina** | | ez du ezer esan.

Zerrenda bateko elementuak

- ✔ Bakeaz mintzo dira, baina egunero erasotzen diete **hiriei** |, **errefuxiatu-guneei** |, **eta erakunde palestinarrei.**

Denbora, lekua, modua

Inguruabarrak adierazten dituzten osagarriak eten batez bereizten dira, galdegai ez badira.

- ✔ **Goizaldean,** | **Nabulusen** |, 50 bat tanke sartu dira.

Aposizioak eta azalpenak

- ✔ Oso kokaina garbia da, | **nahasketarik gabekoa** |, eta 75 milioi euro balio du.
- ✔ Lehen atxilotua, | **25 urtekoa** |, Donostian jaioa da.

5.3.6. Mintzakatean bi eten luze eragiten dituzten osagaiak hobe da beste modu batean txertatzea.

- ✘ Europako burtsek, | | **Londresekoak izan ezik** | |, goraka hasi dute astea.
- ✔ Europako burtsek goraka hasi dute astea, | | **Londresekoak izan ezik.**
- ✘ Alderdi abertzaleak eta abertzale ez direnak ados jartzea da bidea. Euren esanetan, orduan bultzatuko lukete, | | **eta ez lehenago** | |, referenduma.
- ✔ Alderdi abertzaleak eta abertzale ez direnak ados jartzea da bidea. Euren esanetan, orduan bultzatuko lukete referenduma, | | **eta ez lehenago.**

5.3.7. Albiste-testuak esaten direnean, makulu-doinuak eta doinu biziatsuak guztiz desegoki dira. Horrelakorik ez egiteko, melodia eta azentuen banaketa aldatu egin behar dira testuan zehar.

Aukeretako bat hitz-andanen luzera aldatzea da; batzuk luzeago, beste batzuk laburrago. Andana guztiak silaba-kopuru berekoak badira, errazago jaus daiteke doinu usteletan.

Beste aukera bat, esaldien antolamendua aldatuz joatea da. Ez da estrategia ona, esate baterako, aditza esaldiaren amaierarako uztea beti.

Egitura berdintsuak haustea ere baliagarria da. Adibidez, aditzak kateatzen badira, laguntzailea ken da-kioke aditzetako bati.

- ✘ Proiektua **aurkeztu dute**, bozketa **egin dute**, eta ontzat **eman dute**.
- ✔ Proiektua **aurkeztu**, bozketa **egin**, eta ontzat **eman dute**.
- ✔ Proiektua **aurkeztu dute**, bozketa **egin**, eta ontzat **eman dute**.

Hotsak errepikatzen direnean, testua belarrirako deseroso bihurtzen da, eta ulermena eragoztera ere hel daiteke. Hots-errepikapen edo kakofoniak deuseztatzeko modu bat sinonimoetara jotzea da.

- ✘ Europak **berriki berrets**i du Kyotoko protokoloa.
- ✔ Europak duela gutxi berrets*i* du Kyotoko protokoloa.

“ Les accents régionaux sont parfaitement acceptables en ondes, pourvu que l’articulation soit claire et que les principes de base du français utilisé par l’ensemble des réseaux de la Radio et de la Télévision françaises de Radio-Canada soient respectés. (15) ”
La qualité du français à Radio-Canada

(15) Uhinetan, guztiz onargarriak dira eskualde-doinuak, betiere ahoskera garbia bada, eta Radio-Canadako irrati eta telebista frantsesen sarean erabili beharreko frantsesaren oinarritzko printzipioak errespetatu egiten badira.

Aurkibide gramatikala

IZENAREN INGURUKOAK

IZENA

Numeroa	4.1.5.
Generoa eta sexua	3.1.2.
Izen bereziak eta arruntak	3.1.a. / 3.4.a. / 3.4.1. / 3.4.2. / 3.4.5.
Izen bizidunak eta bizigabeak	3.1.a. / 3.1.4. / 4.1.7.

IZENORDAINAK

Hirugarren pertsonakoak	1.2.6.
Galdegaiaren ordezekoak	4.2.6.

DETERMINATZAILEAK

<i>Bat</i> mugatzailea	2.2.4.
Artikulua	2.2.b. / 2.2.4. / 2.2.6. / 3.4.b.
Artikulu hurbila	2.2.4. / 2.2.6.
Erakusleak	2.2.6. / 2.2.7. / 2.2.8.
Zenbatzaileak	4.1.a. / 4.1.4. / 4.1.5. / 4.1.6. / 4.1.7. / 4.1.8. / 4.1.9.
<i>Guzti, den eta oro</i>	2.3.a.
<i>Beste</i>	2.2.5.

IZENLAGUNAK

<i>-ko</i>	3.1.2. / 3.4.4. / 4.1.2. / 4.1.3. / 4.1.4. / 4.1.9.
<i>-ren</i>	4.1.2. / 4.1.9.

APOSIZIOAK

Kokalekua eta deklinatzea	3.1.b. / 3.1.1.
Erabilera	3.1.1. / 3.1.2. / 3.1.3. / 3.4.3. / 3.4.4.

DEKLINABIDEA

Mugatua eta mugagabea	4.1.a. / 4.1.b. / 4.1.1. / 4.1.5. / 4.1.6.
Mugagabe berezia	4.1.2. / 4.1.3. / 4.1.4.
Kasuen erabilera okerrak	4.1.7.

ADITZAREN INGURUKOAK

ADITZ FLEXIOA

Ezetzta	2.3.5. / 4.2.7.
Aditz modalak	2.1.3. / 3.3.4. / 3.3.7. / 4.3.2.
Partikula modalak	4.3.5.
Aditzaren elipsia	2.1.3. / 2.3.1. / 4.2.5. / 5.3.7.

DENBORA ETA MODUA

Orainaldi burutua	3.3.a. / 3.3.b. / 3.3.1. / 3.3.2. / 3.3.5.
Orainaldi burutugabea	3.3.a. / 3.3.b. / 3.3.4.
Orainaldi puntukaria	3.3.a. / 3.3.b. / 3.3.3. / 3.3.4. / 3.3.5.
Geroaldia	3.3.a. / 3.3.b. / 3.3.1. / 3.3.7. / 4.3.6.
Iraganaldia	3.3.a. / 3.3.2. / 3.3.6.
Potentziala	4.3.a. / 4.3.b. / 4.3.1.

ADITZ PERIFRASIAK

Posible izatea	4.3.2.
Amaitu gabeko prozesuak	3.3.3. / 3.3.4.
Etorkizuna	3.3.7.

SINTAXIA

FUNTZIOEN ANTOLAMENDUA

Atribuzioa eta predikazioa	4.1.b. / 2.3.7.
Egitura inpersonalak	1.2.6. / 2.1.1. / 2.3.4.
Egitura pasiboak	1.2.6. / 2.3.4.
Egitura aktiboak	1.2.6.

INFORMAZIOAREN ANTOLAMENDUA

Subjektua	2.3.a. / 2.3.2.
Aditza ardatz	2.3.a. / 2.3.b. / 2.3.1.
Galdegaia	2.3.b. / 2.3.c. / 2.3.3. / 2.3.4. / 2.3.6. / 5.3.1.
Galdegaia aditzaren ostean	2.3.7.
Mintzagaia	2.3.b. / 2.3.c. / 2.3.8. / 5.3.3.
Hizpideabarrak	2.3.b. / 2.3.c. / 5.3.1.
Gehikuntzak	2.3.b. / 2.3.c. / 5.3.2.

OSAGAIEN ORDENAMENDUA

Ordena neutroa	2.3.a. / 2.3.c. / 2.3.2. / 2.3.3.
Aditzaren kokalekua	1.2.5. / 2.3.a. / 2.3.b. / 4.2.4. / 4.2.5.
Mendeko perpausak	2.3.2. / 2.3.7. / 4.2.3.
Ezezkoak	2.3.5.

PERPAUS ELKARTUAK

Lokailuak eta juntagailuak	2.2.b. / 2.2.2. / 2.2.3. / 2.3.8.
Menderagailuak	2.2.b. / 2.2.3. / 5.2.3.
Erlatiboak	2.3.4. / 2.3.8. / 3.1.1. / 3.2.2.
Kausazkoak	3.5.a. / 3.5.1. / 3.5.2. / 3.5.3.
Osagarriak (adierazpenekoak)	2.3.7. / 4.2.b. / 4.2.1. / 4.2.3. / 4.2.4. / 4.2.5. / 4.2.6. / 4.2.7. / 4.2.8.
Denborazkoak	4.4.2. / 4.4.3. / 4.4.4. / 4.4.5.
Moduzkoak	2.2.3. / 4.3.7. / 4.4.1. / 4.4.2. / 4.4.3. / 4.4.4. / 4.4.5.
Kontseziozkoak	2.2.3.

AHOSKERA

FONEMAK

Euskararen fonemak 5.1.a. / 5.1.1. / 5.1.2. / 5.1.3. / 5.1.4. / 5.1.5. / 5.1.6. / 5.1.7. / 5.1.8. / 5.3.8.

Hots-bilkurak 5.2.a. / 5.2.1. / 5.2.2. / 5.2.3. / 5.2.4. / 5.2.5. / 5.2.6.

DOINUERA

Etenak 5.3.a. / 5.3.4. / 5.3.5. / 5.3.6.

Melodia 5.3.a. / 5.3.1. / 5.3.2. / 5.3.3. / 5.3.7.

LEXIKOA ETA BESTE

HIZKUNTZA ALDAERAK

Euskara batua eta euskalkiak 1.2.a. / 5.3.a.

Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia 1.2.a. / 1.2.b. / 1.2.1. / 2.3.7. / 4.2.3. / 5.3.6.

Erregistro mistoa 1.2.a. / 1.2.b.

Hizkera jasoia edo goi-mailakoa 1.2.4. / 2.2.9. / 3.2.3.

Hizkera iraingarria 2.2.9. / 3.2.3.

Hizkera kolokial edo lagunartekoa 2.2.9. / 3.2.3.

Teknizismoak, arkaismoak eta abar 3.2.3.

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK

Ideien adierazpena 1.1.1. / 1.1.2.

Ideia-jarioa 1.2.2. / 1.2.3. / 4.2.4.

Informazio-karga 1.2.5. / 2.2.1. / 2.3.5. / 4.2.3.

Hots-harmonia 5.3.8.

BALIABIDE LEXIKOAK

Esapide eginak 1.3.2. / 2.1.1. / 2.1.2.

Sinonimoak 2.2.9. / 4.2.5.

Hitzen esangura 3.2.a. / 3.2.1. / 3.2.2. / 3.2.3. / 4.2.2.

LOKUZIOAK

Adierazpenezkoak 4.2.9.

Ahalezkoak 4.3.3. / 4.3.4.

Denborazkoak 2.1.1.

Kausazkoak 3.5.1.

IDAZTARAUAK

Pantailako idatziak 2.1.3.

Izen ofizialak 3.4.1.

Laburtzapenak (siglak, ikurrak...) 1.2.1. / 3.1.2. / 3.2.2.

Gaikako aurkibidea

-a artikulua	3.4.b.
-a berezkoa	3.4.b. / 4.1.b.
abagunea	4.3.b. / 4.3.3.
<i>adibidez</i>	2.2.3.
<i>adierazi</i>	4.2.2. / 4.2.4. / 4.2.5.
adierazpenak	1.3.1.
aditza vs. izena	2.3.1.
<i>agindu</i> (hitz eman)	4.2.4.
<i>agindu</i> (manatu)	4.2.8.
<i>ahal</i>	2.1.3. / 4.3.2.
ahala	4.3.b. / 4.3.1. / 4.3.2. / 4.3.3.
ahalmena	4.3.b.
<i>ahaztu</i>	4.2.7.
aipu-markak	1.2.1. / 4.2.a.
aita santuen izenak	3.1.c.
<i>aitortu</i>	4.2.2.
<i>aktorea</i>	3.1.2.
<i>aldarrikatu</i>	4.2.2.
<i>alde</i> (marka eta tantoetan)	4.1.2.
aldiberekotasuna	3.3.2. / 4.4.4.
<i>alkatesa</i>	3.1.2.
amaitu gabeko jazoerak (aditza nola erabili)	3.3.3 / 3.3.4.
<i>antza denez</i>	4.3.3.
<i>ari</i>	3.3.3. / 3.3.4. / 3.3.5.
<i>arrazoi</i>	3.5.1.
arrazoiak	3.5.a.
artelanak	3.1.3.
asmoak (aditza nola erabili)	3.3.7.
<i>aurreratu</i>	4.2.6.
azalpenak	3.5.a.
azentua	5.3.a. / 5.3.1.
<i>baieztatu</i>	4.2.2.
baimena	4.3.b. / 4.3.4.
<i>baina</i>	2.2.3.
<i>baino</i>	2.2.3.

<i>baino gehiago</i>	4.1.9.
<i>baino gutxiago</i>	4.1.9.
<i>bait-</i>	3.5.3.
<i>bait-</i> (ahoskera)	5.2.3.
<i>baitan</i>	3.1.a. / 3.1.4.
<i>balioa</i> (prezioa)	4.1.2.
<i>baliteke</i>	4.3.3.
<i>barik</i>	2.2.3.
<i>barruan</i>	3.1.4.
<i>bart</i>	3.3.6.
<i>bat</i> (mugatzaila)	2.2.4.
<i>behar</i>	2.1.3.
<i>behar</i> (etorkizuna adierazteko)	3.3.7.
<i>beharrean</i>	2.2.3.
<i>behin-behineko egoerak</i> (aditza nola erabili)	3.3.5.
<i>berri</i>	2.2.5.
<i>berriro</i>	2.2.5.
<i>berriz</i>	2.2.3.
<i>bertan</i>	2.2.8.
<i>bestalde</i>	2.2.3.
<i>beste</i>	2.2.5.
<i>beste behin</i>	2.2.5.
<i>besteak beste</i>	2.2.3.
<i>betetako</i>	3.2.1.
<i>bezalako oker erabilita</i>	2.2.3.
<i>bide</i>	4.3.5.
<i>biografiak</i> (aditza nola erabili)	3.3.6.
<i>bitarteak</i>	4.1.8.
<i>bitarteko izatea</i>	4.4.4.
<i>bokalak</i>	5.1.a.
<i>bokal-bilkurak</i> (ahoskera)	5.2.1.
<i>dagokionean</i>	2.1.2.
<i>dagokionez</i>	2.1.2.
<i>dela eta</i>	3.5.1.
<i>dela kausa</i>	3.5.1.
<i>dela medio</i>	3.5.1.
<i>deskribapenak</i> (aditza nola erabili)	3.3.b.
<i>digresioak</i>	1.2.2.
<i>diptongoak</i>	5.2.a.
<i>dirudienez</i>	4.3.3.
<i>doinu biziatsuak</i>	5.3.7.
<i>doinuera</i>	5.3.a. / 5.3.1. / 5.3.2.

dokumentalak (aditza nola erabili)	3.3.6.
<i>egia da</i>	4.2.7.
egokiera	4.3.3.
ehunekoak	4.1.5.
<i>ei</i>	4.3.5.
enumerazioak	2.2.3.
<i>era berean</i>	2.2.2.
<i>eragile</i>	3.5.1.
<i>eraginez</i>	3.5.1.
erakundeak	3.1.a. / 3.1.2.
<i>erdi</i>	4.1.6.
<i>ere</i>	2.2.2.
errege-erreginen izenak	3.1.c.
<i>esan</i>	2.1.2. / 4.2.b. / 4.2.2.
eskalak	4.1.3.
<i>eskatu</i>	4.2.8.
eskeak (aditza nola erabili)	3.3.b.
<i>esker</i>	1.1.2.
<i>eta</i> (azalpenezkoa)	3.5.3.
<i>eta</i> (emendiozkoa)	2.2.3. / 4.4.4. / 4.4.5.
etenak (doinuera)	1.2.2. / 5.3.a. / 5.3.1. / 5.3.2. / 5.3.3. / 5.3.5. / 5.3.6.
etorkizuna (aditza nola erabili)	3.3.b. / 3.3.7.
Euskal Herriko toponimoak	3.4.a. / 3.4.1.
<i>exijitu</i>	4.2.8.
<i>ez</i>	2.3.5.
<i>ez</i> (ahoskera)	5.2.2.
<i>ez ezik</i>	2.2.3.
<i>ezin</i>	2.1.3. / 4.3.2.
<i>ezina</i>	4.3.b. / 4.3.1. / 4.3.2. / 4.3.3.
filmak	3.1.3.
fonemak	5.1.a.
<i>g</i> (ahoskera)	5.1.1. / 5.1.8.
<i>gaineratu</i>	4.2.5.
gaitasuna	4.3.b. / 4.3.3.
<i>-gan</i>	3.1.a.
<i>-gatik</i>	3.5.1.
<i>gauza jakina da</i>	4.2.7.
gerturik egotea	4.3.3.
<i>goazen</i>	2.1.2.
gonbitak (aditza nola erabili)	3.3.b.
<i>gutxi gorabehera</i>	4.1.9.
<i>h</i> (ahoskera)	5.1.3. / 5.1.8.

<i>haiek</i>	1.2.6. / 2.2.8.
<i>hala nola</i>	2.2.3.
<i>han(txe)</i>	2.2.8.
<i>hau</i>	2.2.7.
<i>hauek</i>	2.2.7.
<i>heren</i>	4.1.6.
hiatoak	5.2.a.
hipotesiak	4.3.b.
hitz-andanak	5.3.4.
<i>hori</i>	2.2.6.
<i>horiek</i>	2.2.6.
hotsak	5.1.a.
<i>hura</i>	2.2.8.
<i>ia</i>	4.1.9.
<i>il</i> (ahoskera)	5.1.4.
<i>in</i> (ahoskera)	5.1.4.
<i>inguru</i>	4.1.9.
inguruabarrak	4.4.1.
iradokizunak (aditza nola erabili)	3.3.b.
<i>iragari</i>	4.2.2.
<i>it</i> (ahoskera)	5.1.7.
itxi gabeko jazoerak (aditza nola erabili)	3.3.3. / 3.3.4. / 3.3.5.
itzulinguruak	1.2.2. / 3.2.1.
itzultzea	1.1.1.
<i>izan ezik</i>	2.2.3.
izena vs. aditza	2.3.1.
izengoitiak	3.1.c.
<i>j</i> (ahoskera)	5.1.2. / 5.1.8.
<i>jarraitu</i>	2.1.1.
jentilizioak	3.1.2. / 3.3.4.
kakofonia	5.3.8.
kargua	3.1.2.
kausak	3.5.a. / 3.5.1. / 4.3.7.
<i>kausaz</i>	3.5.1.
kirol-kategoriak	4.1.2.
kirol-probak	4.1.2.
kirol-taldeen izenak	3.4.5.
klixeak	3.2.1.
kontaketak (aditza nola erabili)	3.3.b. / 3.3.2.
kontsonanteak	5.1.b.
kontsonante-bilkurak (ahoskera)	5.2.4. / 5.2.6.
kopuruen gorabeherak	4.1.7.

-la (moduzkoa)	4.4.1. / 4.4.5.
-la (osagarria)	4.2.b. / 4.2.6. / 4.2.7.
-la medio	1.1.2.
-lako	3.5.2. / 3.5.3.
-lako susmo	4.3.3.
-lako uste	4.3.3.
-lakoan	3.5.3. / 4.3.7.
lanbidea	3.1.2.
-larik (moduzkoa)	2.2.3. / 4.4.1. / 4.4.5.
laurden	4.1.6.
lekukotasunak	1.3.1.
liburuak	3.1.3.
litekeena da	4.3.3.
ll (ahoskera)	5.1.4.
lokuzioak (ahoskera)	5.2.6.
lor্তু	3.2.1.
lotura-esapideak	2.1.2.
makulu-doinuak	5.3.7.
margolanak	3.1.3.
munduko toponimoak	3.4.2. / 5.1.8.
musika-konposizioak	3.1.3.
-n	4.2.b.
-n susmo	4.3.3.
-n uste	4.3.3.
nahi	2.1.3.
nahiz	2.2.3.
nahiz eta	2.2.3.
-naren susmo	4.3.3.
-naren uste	4.3.3.
-nean	4.4.3. / 4.4.5.
neurriak	4.1.1. / 4.1.2. / 4.1.3. / 4.1.4.
-nez	4.2.9.
-nik	4.2.7.
obrak	3.1.3.
omen	4.3.5.
ondoren	4.4.2.
ondorioz	3.5.1.
ordea	2.2.2. / 2.2.3.
ostean	4.4.2.
palatalizazioa	5.1.7.
posible izatea	4.3.b. / 4.3.1. / 4.3.2. / 4.3.3. / 4.3.5.
prezioa	4.1.2.

probabilitatea	4.3.b. / 4.3.3.
probak (kiroletakoak)	4.1.2.
proportzioak	4.1.5.
proposamenak (aditza nola erabili)	3.3.b.
r biguna	5.2.5.
r gogorra	5.2.5.
-ren baitan	3.1.a.
-ren bat	4.1.9.
-ren esanetan	4.2.9.
-ren hitzetan	4.2.9.
-rik	2.1.3. / 4.4.3.
s (ahoskera)	5.1.5.
salatu	4.2.2.
segur aski	4.3.3.
sexu-bereizketa	3.1.2.
susmoa	4.3.b. / 4.3.3. / 4.3.6. / 4.3.7.
-ta	2.1.3. / 4.4.2. / 4.4.3.
tamaina	4.1.4.
tarteak	4.1.8.
tarteko dela	3.5.1.
-tik behera	4.1.9.
-tik gora	4.1.9.
titularrak	2.1.3.
toponimoak (leku-izenak)	3.4.a. / 3.4.b.
ts (ahoskera)	5.1.5.
txosten-bideok (aditza nola erabili)	3.3.6.
tz (ahoskera)	5.1.5.
-tzea	4.2.8.
-tzean	4.4.2. / 4.4.3.
-tzean egon / izan	3.3.7.
-tzeko (helburuzkoa)	2.2.3.
-tzeko (osagarria)	4.2.b. / 4.2.8.
-tzeko arrisku	4.3.4.
-tzeko aukera	4.3.3. / 4.3.4.
-tzeko gai	4.3.3.
-tzeko moduan	4.3.3.
-tzeko zorian egon / izan	3.3.7.
-tzekoa(k) izan	3.3.7.
-tzekotan izan	3.3.7.
-tzera	4.4.4.
-tzera joan	3.3.7.
ukagaia	2.3.5.

<i>ukatu</i>	2.3.6. / 4.2.7.
unitate fonikoak	5.3.1. / 5.3.2.
x (ahoskera)	5.1.6. / 5.1.8.
-z	2.2.3. / 4.4.3. / 4.4.4. / 4.4.5.
z (ahoskera)	5.1.5.
zatikiak	4.1.6.
<i>zein</i> erlatiboa	1.2.4.
zenbakiak (biribiltzea)	1.2.1.
<i>zera</i>	4.2.6.
<i>zergatik</i>	3.5.a. / 3.5.2.
-zio (ahoskera)	5.2.1.
<i>ziurrenik</i>	4.3.3.
ziurtasunik eza	4.3.b.